

Herriko auzuneetatik udaleku itxiak egin ditu Dimostenek

Dimako Dimesten Herri Hezitzaile proiektuak, udaleku txanda bi egin dauz herriko umeakaz. Nagusienak Artaun, Oba eta Indusin egon dira; txikerrenak, Oban eta Indusin. Auzoko ermitetan lo egin eta bertako txokoetan sukaldatutako jatekoa jan dabe. Eta batez be, euren sasoiko beste umeakaz olgau eta egoteko aukerea izan dabe udalekuean parte hartu daben Dimako gazteak, euren arteko sozializazioa landuteko aukerea, hain zuzen be. **13. orrialdea**



Zaharkitze programatua poema liburua kaleratu dau Eva Perez-Pons-ek
13. orrialdea

1555eko Zeberioako sorginak deitutako auzia eta bildur giroko gizarteak

Inkiszioa Arratian ibili zaneko sasoia eta 1555eko auzia eta haren ondorioak aztertu ondoren, auzi horren barri dakarku Kepa Perez Urrazak, EHUko irakasle jubiladu, Pedagogian doktore eta Zeberioako ondare kulturalaren ikertzaile eta bultzatzaileak. Zeberioako sorginak deitutako auzia, herriko 23 personen kontra garatu zan auzi zibila izan zan. Hasikeran hamazazpi andra eta sei gizon atxilotu ebezan sorgin izatearen akusazinoan. Hainbat salaketa egin ziran eta prozesua hiru urtez luzatu zan. Akusaduak torturak sufridu ebezan. "Ez zan egiaren bila joaten, erruduntasunaren aitortza torturaren bidez bilatzen baino" dino irakasleak. Izan be, "Inkiszioak sortu eta eragin eban bildur giroan, pentsamentu librea ezabatu egiten zan". **8. eta 9. orrialdeak**



EAEn orokorrean baino abstenzino txikiagoa Arratian garagarrilaren 12ko hauteskundeetan

Deitutakoen %65ek emon eben botoa Eusko Legebiltzarrerako garagarrilaren 12an egin ziran hauteskundeetan. EAJ-PNVk (3.410 boto) eta EH Bilduk (3.179 boto) lortu ebezan boto gehien. Hirugarren indarra, Elkarrekin Podemos izan zan, 282 boto jasota, lehenengo bietatik eta oin dala lau urte jasotakoetatik sano urrun. PSE-EEK 207 boto eta PP eta Ciudadanosen koalizioak 122 jaso ebezan Arratia, Ubide eta Zeberion. Hau da, 2016an baino boto gitiago jaso ebezan 2020ko hauteskundeetan Legebiltzarrean eserlekua lortu daben partidu guztiak, eskoi muturreko Vox taldeak izan ezik. 2016an ez egoan partidu hau eta. Gurean, 47 boto jaso ditu guztira. **5. orrialdea**

IGORRE

Epaitegiak amaitutzat emon ditu Araluceko beharginen kontratuak

Autoak kontratuak azkentzeko errazoi ekonomikoak onartzen deusaz BATZeri. BATZek eta Aralucek enpresa talde bakarra osotuten dabela be badino epaileak. Prozesu luze honen ostean, 135 behargin geratu dira kalean.

Epaileak autoa emon eban egunean, ELA sindikatuak helegitea ipinteko asmoa agertu eban eta LABek BATZeri Araluceko enpresa batzordeagaz negoziatzinoari ekitea eskatu eutsan. Gainera, LABen arabera, kaleratze prozesu honen ostean, kooperatibismoaren ereduaren gaineko hausnarketea beharrezkoa da. **6. orrialdea**

Umeen kontrako abusu sexualen kontrako sensibilizazio kanpaina

Arratiako Mobimentu Feministek abiatu dau kanpaina. Zazpi hila-betez hilean behin kartel bat kaleratuko dabe, datu bategaz, gizarteari zuzendutako itaun bategaz eta estereotipoak apurtuteko erasotzailean fokua ipinten dauan mezuagaz. **7. orrialdea**

EKIN 30 urte beharrean

- LAN PUBLIKOAK
- INDUSKETAK
- GARRAIOAK
- UR SAREAK
- SANEAMENTSU SAREAK
- BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
- PABILOIAK
- URBANIZAZIOAK

94 631 72 57 Igorre (Bizkaia)
eraiketak@construccioneseKin.com

ARRATIA

Andra Mari kulturalak Zeanurin

Jaiak bertan behera geratu arren, Lemoan online bidezko ekintza batzuk egin dabez, jaiak gogoan izateko. Zeanurin, esku pelota txapelketea, antzerkia, zinea eta kontzertuak antolatuta dabez hilaren 13tik 16ra. Areatzan jaiak bertan behera geratu dira eta Zeberion, momentuz, Udalak ez dau ezer aurreikusten urri lehenengo 2an izaten diran sandonietarako. **7. orrialdea**

ZEANURI

NAIARA Hortz Klinika

Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

Literatura txokoa

LAS VENTAJAS DE SER ANTIPÁTICO

"Ene, liburu hau leidu beharko dot" izan zan pentsau neban lehenengo gauzea izenburua ikusi eta segiduan. Ondo ezetuten nabek badakie bai, "antipática" izaten be badakidala, sarri. Baina zergaitik ostondu garana? Zergaitik irribarra erakutsi benetan gorik ez daukagunean? Zergaitik gustetan ez jakuzan gauzak onartu eta baietz esan danari? Ez gara ba libre gizakiok? Bueno, hobeto esanda, ez daukagu ba libre izateko eskubidea gizakiok?

Antza danez ez, urrinago joan barik eta gauza latzagoetan sakondu barik, egunerokotasunean agerian dago konbenzionalitatez beteta dagoala gure bizimodua. "Egokitasunak" dino zelan jokatu behar dogun, zelan

jantzi behar garan, nogaz ibili behar garan, zer gustau behar jakun, zer jan behar dogun, zer pentsau. Ene bada...

Simón Elías be ez dago eroso gizarte honen mozorroagaz eta naturalidadea dauka gustuko; jentearen naturalidadea eta berben naturalidadea, filtro barik, mozorro barik, artificio barik. Biluzteko beharizana sentiduten dau sarri eta holan egiten dau.

Liburu honetan leku desbardineta eroango deusku idazleak, Ginebrara, Esaurirara, Teheranera, eta Chamonixera besteak beste, eta leku horreetako egunerokotasuna erakutsiko deusku, berak bizitakoak barne. Eguneroko bizimodu erosotik iges egingo dau eta bateko eta besteko gizarte

gaz nahastuko da. Bakardadeagaz gozatuko dau, sexuagaz jokatu egingo dau, gauza eta momentu sinpleakaz asetuko da.

Bidaian eroango gaitu bai, baina era berean beste gauza batzuk be ikasiko doguz, izan be Elíasek sarri aitatzen dauz bere bidailagun izandako liburu eta idazleak, eta historiaz be asko ikasiko dau irakurleak. Tribu desbardin jatorri eta ohiturak ezetuko doguz, herrialde desbardineta sexu-ohiturak kontauko deusku, eta momentu batzuetan ezeroso sentiduko gara. Okzidenteko seme-alaba garan neurrian behintzat.

Eta pot-pourri hori guztiori umore eta gatzagaz.

Liburu egokia pandemia mo-

mentuotan irakurteko. Bidaian eroango gaitu leku batetik bestera, irribarra aterako deusku, datuak emongo deusku, ikasi be seguru zeozer barria ikasiko dogula eta nok daki, igual libreago izaten be lagunduko gaitu. Izan be, berak dinoan moduan: "es reconfortante enfrentar la vida con el pecho abierto, sin tener nada que ocultar ni nada con lo que filtrar, como si estuviese desnudo". Ba horixe: aske.

Nerea Goioaga



Simón Elías

Las ventajas de ser antipático. Tribulaciones de un aventurero desnudo

Pepitas argitaletxea, 2018

190 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

<p>Larrialdiak Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00 SOS DEIAK 112</p> <p>Guardiako Farmaziak 09:00etatik 22:00etara Abuztuaren 3tik 9ra Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1 Tel.: 94 673 93 95 eta 620 262 937</p> <p>22:00etatik 09:00etara Ruiz Golvano. Amorebieta-Etxano. Abuztuaren 10etik 16ra Goikoetxea. Dima. Ugaraña 33 Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057</p> <p>22:00etatik 09:00etara Goiria Montoya. Amorebieta-Etxano. Abuztuaren 17tik 23ra Badiola. Artea. Herriko Plaza 7 Tel.: 94 631 73 11 eta 629 463 048</p> <p>22:00etatik 09:00etara Melero. Amorebieta-Etxano. Abuztuaren 24tik 30era Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1 Tel.: 94 673 93 95 eta 620 262 937</p> <p>22:00etatik 09:00etara Sarasketa. Amorebieta-Etxano. Urte osoan 22:00etatik 09:00etara Zoco Robles. Urbi 15. Basauri. Medikuak Arantzazu: 94 631 56 89 Artea: 94 673 92 11</p>	<p>Areatza: 94 631 71 52 Bedia: 94 631 34 13 Dima: 94 680 19 74 Igorre: 94 600 74 63 Lemoa: 94 631 31 16 Ubide: 945 38 50 14 Zeanuri: 94 673 91 49 Zeberio: 94 648 20 79</p> <p>Udaletxeak Arantzazu: 94 631 56 89 Artea: 94 673 92 05 Areatza: 94 673 90 10 Bedia: 94 631 42 00 Dima: 94 631 57 25 Igorre: 94 631 53 84 Lemoa: 94 631 30 05 Ubide: 945 45 03 22 Zeanuri: 94 673 91 46 Zeberio: 94 648 10 79</p> <p>Udalen Mankomunitatea 94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15 Gorbeialde 94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01 Parketxea 94 673 92 79 Igorreko Kultur Etxea 94 673 62 51 Gorbeialde Irratia 94 631 52 90 Euskotren 94 433 33 33 Areatzako Notarioratza 94 673 92 26</p>	<p>Bizkaibus 94 612 55 55 Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era. Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era. Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.</p> <p>Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro. Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.</p> <p>Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengoa 22:15ean Galdakaoraino. Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.</p> <p>Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo. Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.</p> <p>Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin. Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin. Otxandiotik urtekerak: Lanegun eta</p>	<p>zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro. Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.</p> <p>Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro. Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.</p> <p>Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik) Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.</p> <p>Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik) Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.</p> <p>Zeberio-Ugao Lanegun eta zapatuetan: Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10*, 11:00, 11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20. *Basauriraino (Ariz) heltzean da. Gainontzekoak Ugaoraino. Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.</p> <p>Ugao-Zeberio Lanegun eta zapatuetan: Ugaotik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30, 19:40. Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.</p> <p>Artea-Zeberio-Ugao Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00*, 14:00, 16:00.</p>	<p>* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago. Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.</p> <p>Ugao-Zeberio-Artea Lanegun eta zapatuetan: Ugaotik: 7:20*, 13:05, 15:30, 20:40. Basauritik (Ariz): 12:45. * Igorreko Instituturaino heltzean dira. Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.</p> <p>Ermitabarri-Arrigorriaga Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.</p> <p>Arrigorriaga-Ermitabarri Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.</p> <p>La Union 94 427 11 11 Bilbo-Gasteiz Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandiokoak 16:00etan. Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik. Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandiokoak 18:30ean.</p> <p>Gasteiz-Bilbo Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandiokoak 10:30ean. Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean. Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.</p> <p style="text-align: right;">* Adi udako ordutegiari</p>
--	---	--	--	---

Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.
Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.
Telefonoa: 94 631 73 14.
Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com
Webgunea: www.begitu.org
Zuzendaria: Iñigo Iruarizaga.
Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.
Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga.
Publizitatea: Iñigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.
Banaketea: Leire Inuntziaga eta Laiene Pagazaurtundua (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta eta Xabier Beitia (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Iker Perez eta Eguzkiñe Zuluaga (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Andoni Brizuela (Zeberio).
Tiradea: 7.300 ale.
Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ZEURE BERBEA

Dietak gizentzen gaitue

Gure gizartean, atzen 30 urteotan, autozainketarako hedatuta dagoan paradigma nagusia argaltzeko dieta miragarriena da.

Dieta berbea entzuten dogu-nean, honako berba, esaldi, emozino edo-eta sensazioak azalera-tzen dira guregan: elikagai debeku edota murrizketea, torturea, otordu murrizketea, jatordu aspergari eta sabore bakoak, iraungitze data, otordu sozialakazko bateraezintasuna, errua, ansiedade, autokontrola, gosea, pisu galera soila... Pentsakera honetan oinarrituz, normala dietak denpora konkretu baten edota une konkretu batez irautea.

Baina inoz hausnartu dozu zergaitik ez daben dietak funtzionetan? Edota une batez pentsau dozu zure gorputzaren benetako beharriak zeintzuk diran? Edota aztertu dozu zein dan elikagai debekatuen eragina gure eguneroko ekintzetan? Edo zenbat denpora behar izan dozun irabazitako pisu guztia galtzeako? Eta oindino garrantzitsuagoa dan beste kontu bat, pentsau dozu ze eragin izango daben dietak zure osasunean?

Beraz, zergaitik ez da osasungarria dieta miragarri bat jarraitzea?

- Galdutako pisu gehiena uretik edota muskulutik eratorritakoa da.

- Gorputzeko gantza muskuluen bidez "erretzen" da. Masa muskularra galtzeak gantza erretzeko kapazitatea galtzea dakar.

- Nahitaezko kaloria kantidadeak larregi gixitzean, gure gorputza "aurrezki" egoeran ipinten da; hau da, jasoten dituan kaloria minimoak era maximo baten

aprobetxetan ditu. Orduan, barriz "normal" jaten hasten garanean, gure gorputzak dana askoz gehiago asimiletan dau, eta horrek galdutako pisua edota gehiago irabaztea dakar; "yo-yo" efektu legez ezetuten doguna.

- Dieta gehienak murriztaileak dira, eta ez makronutrientei jago-kenez bakarrik, janari onartu eta debekatuai buruz be berba egiten deuskue sarritan.

- Normalean karbohidrato zein gantzak mugatu edota ezabatzen deuskuez dietatik.

- Produktu edota suplementuak eskaintzen (saltzean) deuskuez dietaren parte lez.

- Mikronutriente suplementuak konsumidutea gomendatzen deuskue (bitaminak, mineralak, omega-3...) eta bakotxaren osasun egoerearen barri jakin barik honeek hartzea ez da gomendagarria. Nutriente honeek elikagaietatik jasotea onuragarriagoa izango da beti.

- Ez deuskue jaten erakusten, ezta ohitura edota bizitza estilo osasungarriak irakasten be. Arau edota urrats konkretu batzuk emoten deuskuez, ezelango oinarri zientifiko barik askotan.

- Elikagaiakaz gozaten zein janariakaz eta gure gorputzagaz harreman ona izatea bultzatu behar, erru sentimentua edota murrizketak bultzatzen deuskuez.

- Ez dabe kontuan hartzean bakotzak beharrian energetiko batzuk daukaguzala eta beraz bakotzak dieta indibidual bat jarraitu behar dauala.

Honegaitik guztiagaitik, ez dozu uste dieta berbea zure hiztegitik ezabatu eta gauzak beste era batera egiteko momentua heldu danik? Eta hau lortzea posible dala esaten badeutsuet, zer erantzun-go zeunskide?

NAROA ESPARZA ORTUZAR

ERETXIA

Imajinatu daitezue bizitza zaintza barik?

Gaurkoan, zaintza lanak azpimarratu gura doguz, COVID-19ak azalera-tzen arazo daualako inoz baino gehiago lan feminizaduen prekarizazioa.

Androi ipini jakun rol, bete-behar eta eginkizun nagusia izan da zaintza. Lan honek beti androi atxikitu jakuz eta ez dogu inoz behar eta merezidu dauan onarpen, errekonozimentua eta garrantzia jaso.

Hasteko zaintza lan horreek etxetik hasten dira. Zaintza, babestea, garbitzea, mantentzea, heztea... inposatu jaku. Bizitza osoan zehar gure familiaz arduratzearen betebehara izan dogu (seme-alaba, guraso, iloba...), hau da besteen zaintzara bideratuta egon gara. Etxearen garbiketaz eta mantenuaz be geu arduratu behar izan gara eta seme-alaben hezkuntza beti amen eskuetatik emon da.

Androk egin dogu lan eta esfortzu hori guztia ez da inoz onartua izan, ezta ordaindu be. Gure bizitzan, familian eta norbanakoan eragin handiena daukan lanari garrantzi guztia kenduz. Beraz, androk egin dogun lan guztiari garrantzi osoa kendu jaku.

Arlo pribaduan euki, bigarren plano baten ipini eta ikusezinak bilakatu gura izan gaituelako. Gure duintasun osoa kenduz eta gure eskubideak urratuz. Sistema kapitalista, heteropatriarkalak eta errazistak holan antolatuta gura izan gaitualako.

Ha-ta guzti be, rol eta bete-behar honek arlo pribadutik arlo publikora pasau diranean be, andrak antzeko lanak egin ditue; nagusien egoitzetan eta persona nagusien zainketa, garbitzaile lanak, sukaldari, osasun arloan, gizarte-zerbitzuen arloan, janleketan... hau da, lan honek zaintzan oinarrituta dagoz.



ORRATZAK

Arratiako neska* gazte talde feministea

bigarren plano baten ipini gaitualako eta ostendu gura gaitualako. Errekonozimentu bako, prekarizazio maila handiko, baldintza ez duineko, gixi eta txarto ordaindutako, balorau bako, ezkutuko eta garrantzi osoa kendutako lanetan jarduten dogu eta.

Oin, COVID-19aren pandemiak, ustekabeen harrapatutako krisi sozial eta ekonomiko honek argi itxi dau zein garrantzitsuak diran zaintza lanak eta zelango errekonozimentua jaso daben oin arte. Guztiz beharrezkoak dira eta sektore garrantzitsuenetarikoa izanik, gixien mirestu dana izan da. Funtsezkoak bilakatu diran lanak oin hasi dira argitara urtetan; egoitzetako langileak, zaintzaileak, garbitzaileak, erizainak, medikuak, laguntzaileak, elikadura eta ostalaritza arlokoak... eta lan honeetako langileen gehiengo andrazkoa da.

Beraz, hau guztiau azpimarratzeko, imajinatu daitezue bizitza zaintza barik? Zelako gizartean biziko ginateteke, zaintza lanak egongo ez balira? Zer egingo geunke gaixorik gagozanean, arazoetan gagozanean, menpekotasun bat daukagunean, bakarrik gagozanean, etxea gabitzeko laguntza behar dogunean, goazen lekuetara garbi izan behar doguzanean... inoren laguntza eta zainketa jasoko ez bagendu? Imajinatu ezina da. Horregaitik, honegaz argi ixten dogu, zein garrantzitsuak diran zaintza lanak, eurak barik ezinezkoa egingo litxakigu bizitea. Aldaketak egiteko ordua heldu da, androi inoz egin ez jakun onarpena egiteko, zaintzara bideratuta dagozan lanak errekonoziduteko, baldintza hobetan egiteko, prekariedadetik urruntzeko ordua heldu da, behar dan moduan ordainduak izateko, segurtasun guztia eskaintzeko, zerbitzuak eskaintzeko, legeak ezartzeko, errazkeriagaz apurtzeko eta kanpotik lanera datozen andrai babes guztia eskaintzeko... eta batez be duintasun osoa eta berdintasun osoa bermatzeko.

Bizitzak erdigunean jartzea danon eginkizuna danez, feministok antolatuta gaitzean.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Ataka



Edozein itxiturearen urtekerea da atakea (atákea, ahoskatuta). Kainabereak, enbudoak, irazki/irizkiek daukien urtekerarako atea edo zuloari atakea esaten deusagu. Kultura tradizionalen sano arrunta zan berba hau: ardientzako artesiaren ate estuan, kirikinusi edo gaztaina-kirikinoa batzean zan eraikinaren sarreran; karegileen edo ikazginen txabolara sartzeako atean... edo koba baten sarreretan be gauza bera. Adibidez: "Eteondoko atakan egoten da gure txakurra bijiletan".

Gugaz harremanetan ipinteko 94 631 73 14 eta 649 979 112

Publizitatea: 649 979 115

begitu

begitu@topagunea.com www.begitu.org



LUMATUTEN



ALASNE ARTETXE

Euskerearen
geroa
posporoan dago

Hizkuntza pieza multzoa da, besterik ez. Euskerea bera be horixe da pieza moltsoa.

Eskoleak, ez dau jakin gura izan edota ez daki pieza guztiak zelan lotu puzzle dotorea sortu ahal izateko. Plazak, kaleak... ez dau jakin gura izan edota ez daki pieza-puzzle horreek olgetan jartzen ahotik ahora. Etxeak (etxeko suteak), ez dau jakin gura izan edota ez daki pieza-puzzle horreen aberastasuna aprezietan, eta pieza-puzzle horreek bazterren arrakaletan galtzean itxi dauz.

Euskeraz berba egiten dabenen eta ez dabenen artean distantzia handitzen doa, pauso zoli-zoliez. Euskeraz etori handiz berba egiten dabenen eta euskera egiteko ezinaren artean, distantzia handitzen doa, pausu arin-arinez. Arratian (eta non ez) transmisioa eten egin da.

Eten egin da posporoaren txispa. Eten egin da eskoletan, plaze-

tan, etxeetan. Eten egin da esparru formaletan, baita informaletan be. Bizitasuna galdu dau, argia falta jako. Sua amatau egin da posporoak ez daualako indarririk izan.

Gure aitita-amamen sasoiak, osterak, pospororik ia ez egoanean bizi-bizi, distiratsu mantenidu zan, txispa eban. Egun, barriz, hainbat klasetako posporoak daukaguzan iluna da nagusi, argi faltea. Holakorik aitutea ez al da gatxa?

Nork maite dau euskerea? Nori ardura jako posporo baten su mehea? Egia esan ez dot inori ardura jakonik uste; ez umeai, ez gazteai, ez helduai, ez andereño-maisuai, ez kazetariak, ez politikoiak... ez ezkerrekoai, ez eskoikoai... Sinbolotzat hartu dabe/dogu bai batzuek, bai besteak... Esku batetik bestera pasetan dabe/dogu hai-zeak amatau artean, erre artean. Maite ez dogun hori erretzen ixten da. Erretzen danak, barriz, ez dauka bizirik.

Ez dot uste ba, euskerearen biziraupena ordu batzuetako ekin-tzatan, edo egun batekoetan, edo hamaika egunetakoetan dagoanik edo... Nora garoez kanpaina horreek guztiak? Zein da euren benetako helburua? Zein euren benetako etekina/emaitza? Aztertu da sakon? Kanpainearen osteko balorazioa beti izaten da positiboa; nik, osterak, nire eguneko jardunean ez dot holangorik igarri.

Euskerearen biziraupenak aldaketa estrukturala behar dau, eta aldaketa hori gaur behar dau, ez bihar.

Gaurko bazkaria posporoan daukat, euskerearen geroa posporoan dagoan bezalaxe.

ZERTZEAN



KARLOS ARETXABALETA

Handik eta ordu betera biak gaude lo-zakuetan sartuta, txintxo-txintxo, baina ezin dugunez begirik batu hitz-aspertuan murgildu gara. Ume denborako kontuak airera bota ditugu oroimenez beteriko globoak bailiran, eta ganbarako giro hotza gure hitzekin epeldu dugu. Horrelako batean, nire lagunak bota du nirekin maiteminduta zegoela umetan, eta galdetu dit ea ez naizen oroitzen ezkontzeko eskatu zidanean. Irriño inozo batekin baietz esan diot; horrelako uneak nekez ahantzi daitezke. Bitartean, ezin dut burutik kendu lehenago burura etorri zaidan irudi lizun hori. Nire gainean irudika dezaket, bere motxina nire zakilaren kontra igurzten nire eskuek bere bular txikiak laztantzen dituzten bitartean. Bere fluxua nire atzamar lodi eta likatsuetatik dantzan imajinatzen dut, eta bere arrosaren zapore garratza ezpainetara ekartzea gustatuko litzaidake. Nire lagunaren aurpegia dakusat nire masta nagusia lizunkeriaz miazkatzen, bere mihi zoli eta lerdetsua nagusi den afera "zikin" horretan. Izugarri bero nago, lotsatuta ere bai. Beldur naiz ea nire pentsamenduak irakur-

tzeko gai izango ote den.

Disimuluz ezker eskua nire lo-zakuan sartu eta eztanda egitear dagoen larruzko panpina ferekatzen hasi naiz. Ez dut uste konturatu denik, bera bihar egingo dugun mendiari buruz ari baita. Dagoeneko beranduegi da, nire eskua arinegi doa nire pentsamenduen aldean, eta dena berehala amaitzearen beldur naiz. Ondoa dut nire laguna, berba batean, baina bere usainak, lehen aztoratu nauen lurrik, gobernatuta nauka.

Bere hitzak nire ezker eskuaren astinaldi bakoitzarekin katramilatzen dira. Gutxi falta zait. Heltzear nago. Nire ezkerretara dudak kamiseta zikina hartu eta disimuluz zaku barruan sartu dut, anabasa heltzear dago eta. Ezin dut gehiago, ez tul hotsa sortu eta berarekin batera ahapeka intziri ahula bota dut. Banoa... Ufa!

Tamalez, handik eta bost minutura nire laguna berotasun apur baten bila inguratu zait, baina ni dagoeneko lo-seko egon naiz. Ez diot sekula neure buruari barkatuko. Nik uste nuen ez zuela nire berotasunaren beharrik...

* Zertzean atalean argitaratzen doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eremuan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezkerok, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Hasi gara Argazki Lehiaketarako argazkiak jasoten. Joxe Ramon Arbe Soloetak bialdu deusku lehenengoa. Esterenzubin (Nafarroa Behera) ateratako argazkia da: Arpea kobazuloa, hain zuzen be, Errozetako lepoan dagoana. Kobazuloa, zuloa... Polisemikoa da gero irudia! Eta aurten esangura barriak gehitu jakozala esan lei.

Joxe Ramonen moduan gure lehiaketan parte hartzeako, gogoratu argazkiak begitu@topagunea.com helbide elektronikora bialdu behar dirala. Egile bakoitzak 3 argazki gehienez bialdu ahal ditu, bere izen-abizenak eta argazkia noz eta non aterata dagoan esanez. Irabazleak sari ederra eskuratuko dau.



Gorosti
LORAZAINTZA
Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

agoa
hagin klinika
Ortodontzia
Implanteak
Estetika
Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia
Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalejatu Zirkulari 101
R.P.S. 21/06

J.A. IZQUIERDO
PINTURA LANAK
MOKETA · SINTASOLA · PAPEREA
Elexalde, 33 D - 1º · 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel. 94 631 54 82 · 506 554 018

Lehendakari Agor 21
ETROITZ
Agortzen geroak osatzen

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Arratian be, EAJ-PNVk eta EH Bilduk lortu ditue boto gehien

Garagarriaren 12ko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan, Arratian be joera nagusia mantendu da eta EAJ-PNVk (3.410 boto) eta EH Bilduk (3.179 boto) lortu dabez botorik gehienak.

Erredakzioa

Hirugarren indarra, Elkarrekin Podemos izan da, 282 boto jaso ditu, lehenengo bietatik eta oin dala lau urte jasotakoetatik sano urrun. PSE-EEK 207 boto eta PP eta Ciudadanosen koalizioak 122 jaso ditue Arratian.

Deituta egozan 11.516 arra-

tiarretatik, %65ek emon eben botoa, EAE orokorrean baino 12 puntu gehiagok. Abstentzioa beraz, ez zan hain handia izan Arratian, nahiz eta Bedian eta Lemoan, %40ra heldu zan. Artean (%23,59) eta Arantzazun (%24,27) barriz, izan eban abstentzioak mailarik apalena.

EAJ-PNVk 31 eserleku lortu ditu

Legebiltzarrean. Maitane Ipiñazar igorretarrak mantenduko dau bere eserlekua oin hasten dan legegintzaldi honetan.

Boto gitxiago

Abstentzioaren eraginez batez be, alderdi gehienak 2016an baino boto gitxiago jaso dabez. Gora egin dauan bakarra orduan ez

egoan Vox izan da.

EAJ-PNVk boto gehien lortu dauan arren, 2016ko hauteskundeetan baino 446 boto gitxiago lortu dauz. Eutsi egin deusie boto kopuruari EH Bilduk (2016an baino boto 2 gitxiago) eta PSE-EEK, orduan eta oin, 207 boto lortuta, Arratia, Ubide eta Zeberion. Elkarrekin Podemosek oster, EAE

osoan legez, golpe handia hartu dau gurean be; izan be, Arratian 2016an lortutako botoen %60 galdu dauz, 705tik, 282 botor pasauz. Baita PP eta Ciudadanosen koalizioak be, botoen erdiak baino gehiago galdu ditu eta.

Vox alderdi ultraeskoitiarrak 47 boto jaso ditu Arratian eta Zeberion.

	Errolda 2020	Abstentzioa 2020	Abstentzioa 2016	EAJ-PNV 2020	EAJ-PNV 2016	EH Bildu 2020	EH Bildu 2016	Elkarrekin Podemos 2020	Elkarrekin Podemos 2016	PSE-EE 2020	PSE-EE 2016	PP+C's 2020	PP+C's 2016	VOX 2020
Arantzazu	309	75 %24,27	57 %19,32	77 %33,47	102 %42,86	127 %55,21	115 %48,32	19 %8,26	19 %7,98	4 %1,73	1 %0,42	0 %0	1 %0,42	0 %0
Areatza	906	267 %29,47	224 %25,17	258 %41,47	294 %44,60	296 %47,58	268 %40,67	19 %3,05	38 %5,77	14 %2,25	14 %2,12	19 %3,05	38 %5,77	4 %0,64
Artea	574	135 %23,52	127 %20,89	211 %48,72	234 %49,16	182 %42,03	186 %39,08	20 %4,61	32 %6,72	4 %0,92	5 %1,05	10 %2,30	15 %3,15	2 %0,46
Bedia	858	350 %40,79	268 %31,90	277 %55,84	323 %57,26	153 %30,84	120 %21,28	29 %5,84	57 %10,11	19 %3,83	22 %3,90	10 %2,01	29 %5,14	5 %1
Dima	1.148	336 %29,27	273 %23,86	295 %37,20	327 %37,80	446 %56,24	463 %53,53	22 %2,77	56 %6,47	5 %0,63	5 %0,58	4 %0,50	8 %0,92	0 %0
Igorre	3.121	1.210 %38,76	981 %31,16	936 %49,78	1.033 %48,13	770 %40,95	790 %36,81	66 %3,51	173 %8,06	47 %2,50	66 %3,08	24 %1,27	62 %2,89	17 %0,90
Lemoa	2.598	1.042 %40,11	831 %31,22	678 %44,69	772 %42,79	591 %38,95	630 %34,92	71 %4,78	215 %11,92	92 %6,06	85 %4,71	41 %2,70	73 %4,05	13 %0,85
Ubide	134	42 %31,34	35 %25,55	22 %24,44	27 %26,47	57 %63,33	57 %55,68	5 %5,55	14 %13,73	3 %3,33	0 %0	0 %0	2 %1,96	0 %0
Zeanuri	993	282 %28,40	189 %18,99	358 %50,99	421 %52,64	295 %42,02	309 %38,62	18 %2,56	44 %5,50	11 %1,56	5 %0,62	8 %1,13	13 %1,62	4 %0,56
Zeberio	875	271 %30,97	234 %26,62	298 %50,16	323 %50,47	262 %44,10	243 %37,97	13 %2,18	57 %8,91	8 %1,34	4 %0,62	6 %1,01	5 %0,78	2 %0,33
Guztira	11.516	4.010	3.219	3.410	3.856	3.179	3.181	282	705	207	207	122	246	47

Eusko Jaurlaritzarako ordezkartzea lortu daben alderdien datuak.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Gorbeiak txangoak antolatu ditu udarako

Erredakzioa

Gorbeia Turismo Jomugak txangoak bultzatuko ditu, uda osoan zehar egingo diran ibilaldien bitartez. Garagarriaren 4an izan zan lehena, Izartzako Pagadira, barriro be abuztuaren 1ean, 29an eta urri bigarrenaren 4an errepikatuko dan 10 kilometroko ibilbidea. Zeanuriko Undurraga urtegiari itzulia eta Zeberioko altxorak ezetuteko ibilaldiak be antolatu ditu Gorbeia Turismok.

Zeberioko Ermitabarritik ibilbide gidatua egongo da abuztuaren 8an, urri lehenengoaren 12an eta urri bigarrenaren 20an. Partaideak 10:30ean batuko dira

Olabarrietako San Tomas eleizan, 3 orduko ibilbidea egiteko. Auzuneko ondarea, eleizak eta etxeak ikusteko eta euren historia jakiteko aukerea egongo da. Ondorengo pintxo-potea taberna Zaharrean izango da.

Undurraga urtegia

Undurraga urtegiari itzulia egiteko lau aukera egongo dira. Lehengo garagarriaren 25ean izan zan, eta hurrengoak, abuztuaren 22an, urri lehenengoaren 26an eta urri bigarrenaren 25ean izango dira. Erraz egiteko ibilbidea da, 6,5 kilometrokoa, ordu pare baten egiten dana. Partaideak inguruko errota eta urtegiaren

erabilerearen barri jakingo dabe. Amaitutakoan, pintxo-potea Txoko Sagarnan izango da.

Ibilaldiak eta pintxo potea

Orozko eta Otxandioko inguruetatik be hainbat ibilaldi gidatu antolatu ditu Gorbeia Turismok udan zehar egiteko. Danak erraz egitekoak dira eta pintxo poteagaz amaituko dira. Prezioa 3 euro dira nagusientzako, 1,5 euro 6 eta 12 urte bitartekoentzat eta debalde 6 urte baino gitxiagokoentzat.



AREATZA

Eskolea barriztatzeko proiektua onartu da

Erredakzioa

Lehen Hezkuntzako eraikina handitu eta Haur Hezkuntzako barriztatu egingo da. Lanon aurrekontua 2.965.115 eurokoa da eta Atxurrazelaieta enpresea arduratuko da lanak egiteaz. Lanok 2021eko udan hasi eta 2023an amaituko dirala aurreikusten da.

Lehen Hezkuntzako eraikinean, beste eskailera eta igongailua egin gura dabe. Bolivar eraikina barriztu eta gimnasio bat egingo da bertan. Beheko solairuan sutea eta janlekua egingo dira; erdikoa, irakaskuntzarako izango da eta goikoa, administrazio lanetarako. Erukiñe kaletik es-



kolara, sarrera barri bat egitea be aurreikusten da.

"Obra honeekaz, Areatzako ikasleak espazio fisiko hobe baten ikasteko aukerea izango dabe, eta horrez gainera, herriarentzako erabilera publikoko espazio bariak sortuko dira" azaldu dabe Areatzako udal aldizkarian.

DIMA

DIMA

Arratiako Egoitzako langileak omenaldia egin eutseen egoiliarren senideak



Arratiako Egoitzako beharginak.

Erredakzioa

Garagarrilaren 8an izan zan ekitaldia. Egoiliarren senide talde batek, zentroko zuzendaritzegaz koordinatuta, antolatu eban. Helburua, konfinamentuan zehar jagoleak egoiliarrei egindako

zaintzak eskertzea zan: zaintza fisikoa, psikikoa eta emozionalak, eta baita familiei eskainitako arretea. Prestakuntza lanak isilpean egin ebezan, langileentzako sorpresea izateko.

Omenaldian alkartu ziran 30 senide inguru. Arkaitz Estiballesek

eta Andoni Urutxurtuk lagunduta, jauziak eta agurrak jantzatu, abestu, bertsotan egin, testu bat irakurri eta langile bakoitzi diploma bat emon eutsien. Naiara Zamalloak, Arratiako Egoitzako zuzendariak be larrosa bana emon eutsen. Ekitaldian, Andere Ortuzar Arratiako Udalen Mankomunitateko presidentea egon zan eta egindako lana eskertu eutsen langileak.

"Konfinamentuan zehar harreman bikaina izan dogu Arratiako Egoitzako langileakaz. Bideoak, argazkiak, deiak eta abar partekatu doguz, eta horrerik esker familiak gure persona maitatuaren egoera zein zan ikusi ahal izan dogu, eta, holan, gure pena, tristezia eta bildurra arindu ahal izan doguz. Eta badakigu, guk bidalitakoak egoiliarrek zein zaintzaileak poztu eta motibatzen ebezala. Senideok daukagun WhatsApp taldea lagungarria izan jaku horretarako" azaldu deutso BEGITURI senide taldeko batek.

Barrero be urtekerak eta bisitak murriztuta

Garagarrilaren 18an, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailburu Nekane Murgak jakinarazo eban, COVID-19 positiboaren gorako joerearen aurrean, neurriak gogortu egin dituela eta neurri horreen artean, eguneko zentroak zarratu eta egoitzetan, egoiliarren urtekerak eta bisitak murriztu egin dituela. Murgak esan eban ebatzi horreek "ahal bezain laster" kenduko dituela; neurriak "behin-behinekoak" dirala eta "prebenzioa" daukiela helburu.

Arratiako Egoitzako senideak "barrero be gure senideak ikusteko aukerea mugatu jakun garai honetan", langileak, "bihotzez" eskertu gura deutsee lana.

Estiballeen bertsoetako bat

Azken boladan etorri dana ez ote ahal zan usaindu duda badeukot agintariak ez ote diren labaindu zuek osteran lanean prestu danak mimatu ta zaindu egin dozuen lan guzti hori diruz ezin da ordaindu.

IGORRE

BEDIA

Epaitegiak errazoi ekonomikoak onartzen deutzaz BATZeri Araluceko beharginak kaleratzeko

Erredakzioa

Garagarrilaren 17an emon eban autoa epaileak. Auto horregaz amaitutzat jotzen ditu Araluceko 135 beharginen kontratuak eta horretarako BATZ S. Koop.ek emondako errazoi ekonomikoak onartzen dau Araluce zarratutako. Aldi berean, Araluce eta BATZek enpresa talde bakarra osotuten dabela be onartuten dau. Horretan oinarritzen ziran Aralucekoak taldeko beste enpresetan birkolokazioa eskatzeko. ELA sindikatuek helegitea ipinteko asmoa agertu dau.

135 beharginen atzeratutako soldadak eta kaleratzearen kalteordainak "Araluce S.A.U. enpresari jagokoz, eta ez BATZ S. Koop.eri. Azken honek bere gain hartu leike, modu solidarioan, Araluce S.A.U. enpreseak bere aktiboak likidatu eta betebeharrak horreek ordaintzen dituanen pagau barik geratzen dan aldea" dinoe BATZ-etik.

Hasikerako 141 langileetatik, 135 geratzen ziran garagarrilaren 17an. Enpresan denpora gitxi eroien hiruk kontua eskatu eben



kaleratze prozesuaren hasieran eta beste hiruk jubilazioa hartu eben.

Gatazka luzea izan da eta Araluceko beharginak "bizitza berregin gura dabe, proiektu berrak hasi... Mobilizaziorik egotekotan, puntualak izango dira" azaldu deutse BEGITURI Enpresa Batzordetik. Oin langabezia kobretan hasiko dira.

Kooperatibismoa kolokan

LAB sindikatuak BATZeri Araluceko enpresa batzordeagaz negoziatzen ekitea exijiduten deutso garagarrilaren 22an bialdatuko prentsa ohar baten. Izan be, bere esanetan, alkarrizketean eta negoziatzen desageratu egin

dira gatazka konpontzeko, eta Arratian "kaleratzeen arrasto luzea itxi dau".

Horregaitik, "BATZ eta Mondragon taldeak proiektetan daben kooperatibismo eredu hau oso urrun dago historikoki saldu jakunetik, hain zuzen, langileak zuzentzen dituen enpresak, ekonomiaz gainera, kokatuta dagozan eskualdeen egituraketa soziala bultzatzen dabenak. Inbersino sozialeko motorrak. Enpresak eragile sozial moduan... Araluceko gatazkak zalantzan ipinten dau hori guztia, eta kooperatibismoa zertan bihurtzen ari dan agerian ixten deusku". Kooperatibismoak birmoldaketa sakona behar daua la ondorioztatzen dau LABek.

Diru-laguntzak

Erredakzioa

Bediako Udalak, osoko bilkuran ordezkaturat dagozan alderdi politiko bien adostasunagaz 32.000 euro ipiniko ditu, pandemiak enpresa txikiak, autonomoak, ostalaritzari eta familiei eragindako ondorio ekonomikoak arinduteko. Abuztuaren 17ra arte eskatu daitezke laguntzak.

Martiako alarma egoera dala eta, zarratu behar izan eben enpresa, autonomo eta ostalariak, 1.000 euroko laguntza izango dabe eta diru sarreretan erdia baino gehiagoko jeitsiera izan dabenak, 500.

Egoera ekonomiko txarrean geratu diran herriko familiei lagunduteko be 6.000 euro ditu Udalak. Laguntza honek, egoera ahulean egon eta Arratiako Udalen Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuak kudeatzen dituen gizarte lamaldietarako laguntzak jasotek ez daukien familientzat izango dira. ABEE (Aldi Baterako Erregulaziorako Espedientea) egoeran dagozan personak emongo jakiez, euren diru sarrerak 950 euro arte ez badira ailegetan. Apirilean, maiatzean eta bagilean kopuru horretara arteko soldata osotuteko da laguntza. Gainera, beste 6.000 euro dagoz lana eta familia buztartzeko. Laguntzak 300 eurokoak izango dira 12 urtetik beherako seme-alabak jagoteko persona bat kontratatu behar izan dabenentzat.

Gizonezko bat hil zan Artaunen auto istripu baten

Erredakzioa

Garagarrilaren 12an gertatu zan istripua. Ezponda baten kontra jo eta ibilgailua irauli ostean, 83 urteko Dimako gizon bat hil zan eta beragaz joan 14 urteko gaztea zauritu egin zan.

Mutikoa Galdakaoko ospitalera eroan eben eta ospitaleko alta jaso dau daborduko.

Artaungo baso pista baten gertatu zan ezbeharra. Bertara, Bizkaiko Suhiltzaileak joan ziran gizona autotik aterateko, baina ez eben lortu bizirik ateratea.

ARRATIA

Udalekuak eta beste kultura ekitaldiak bertan behera geratu dira

Erredakzioa

COVID-19 kasuak ugartu egin dirala eta aisialdian eragina daukien hainbat neurri hartu ditu Eusko Jaurlaritzak. Garagarrilaren 18an, Osasun Sailak udalekuak bertan behera ixtea agindu eban eta ondorioz, Arratiako udalak eta aisialdi alkarteak umeentzat antolatutako udako jolasak bertan behera geratu ziran. Egun horretan, hartutako beste neurri batzuk izan ziran zahar etxeetako egoiliarren urtekerak eta bisitak murriztea be.

Hurrengo astean zehar, hainbat ekimen geratu ziran bertan behera, Zeanurin urri lehenengoan egitekoa zan Gorbeia Suzien Mendi Lasterketean, tartean.

Bizkaiko Foru Aldundiak be aurten ez eban autobus bidezko Gorbeibusa zerbitzua martxan ipini San Inazio egunean.

Garagarrilaren 27an, beste neurri murriztaile sorta bat iragarri eban Nekane Murga Osasun Sailburuak. Taberna guztiak 01:30ean zarratu behar dabe eta ezin dabe goizeko 06:00rak baino lehenago zabaldu. Eta kanpoan zein barruan mahaian eserita egon beharko da gaurditek aurrera.

Erromerietan be, egitekotan, publikoak jesarrita egon behar dau, kontzertu eta beste edozein ekitaldian legez eta jente kopurua mugatuta egongo da.

ARRATIA

Arratiako Mobimentu Feministak umeen kontrako abusu sexualen gaineko sensibilizazio kanpaina abiatu dau



Garagarrilean ateratako kartela.

Erredakzioa

Zazpi hilabetez hilean-hilean kartel bat kaleratuko dabe. Kartelok, aldizkari baten azalaren itxurakoak, erasotzailean fokua ipini eta hausnarketarako daturen bat emongo dabe. Garagarrilekoak, etxeke gizonak be erasotzaile izan ahal dirala ekarsten dau gogora eta haurtzaroko sexu abusuen %2a bakarrik heltzean dala epaitzera eta kasu gehienak artxibatu edo absolbidu egiten dirala dino eta "Justizian sinisten dozu?" itauna egiten deustoz gizaritari.

Kanpainearen helburua, umeen kontrako abusu sexualak "egon badagozala eta pentsetan doguna baino ohikoagoak dirala" sozializatzea eta mahai gainean ipintea da. Kanpaina bultzatzaileen arabera, gai hau tabua da.

Izan be, mobimentu feministako kideen arabera, erasotzaileak tabu horretaz, isil gordetze horretaz, baliatzen dira erasoak zigor barik geratu daiten. "Guk isiltasun hori apurtu eta gaia mahai gainean ipini gura dogu, gizarteratu, prebenzino modu bat dalako. Zenbat eta ikusgarriagoa izan erasoak, baliabide gehiago ipini ahal izango dira" azaldu deustoz BEGITURI.

Umeen kontrako abusu kasuen porzentaje txikia heltzean da epaitegiatara eta horreetako asko artxibatu egiten dira. Izan be, abusu sexualak askotan familia barruan gertatzen dira eta ez dabe zantzuz fisikorik ixten, erasotzaile eta umea bakarrik dagozanean gertatzen da erasoak-eta. Eskubide urraketa larri honerik aurre egiteko, gizaratea konzientzietaz gainera, umeak sinistea sano garrantzitsua da.

Kartelak hilero eta berbaldiak

Garagarriletik hasita, hilero, hil hasieran, gai bardineko kartel desbardin bat ipiniko dabe kaleretan. Karteletan erasotzaileetan fokua ipini eta hausnarketarako galdera bat agertzen da. Erasotzaileak, etxeke gizonak, usteko aita onak, lagunak, bikotekide jatorrak, gizon atseginak, ederrak eta sentikorak izan daitezkeza adierazoten dabe.

Hausnarketarako datu eta galderak barriz, hurrengoak dira:

"Umeak ez dabe guzurrik esaten. Bizi izandakoa gainditzeko umeak sinistu behar dira. Zuk babesten dozuz?"

"Lau neskatilatatik batek sexu abusuak sufriduten ditu etxe giroan. Zazpi mutikotatik batek sexu abusuak sufriduten ditu bere hurrean. Zure herrian be gertatzen da. Bazenian?"

"Osakidetza, umeen kontrako abusuak detektetako protokolo propioak dauka. Salaketa faltsuak dirala uste dozu?"

"Kanpoan gertatzen danean, danok egiten dogu bat. Erasotzailea ezaguna danean, zergaitik egiten jaku hain gata?"


"Umeen kontrako sexu abusu gehienak ez dabe zantzuz fisikorik ixten. Frogatu ahal dira baina ez dago horretarako tresnarik gaur egun biktimen eskura. Zenbat dira markarik ixten ez daben eraso sexualak?"

"2015ean, Estatu Espainolean umeen kontrako 10 sexu abusu salatu ziran egunero. Salaketa faltsuak dirala uste dozu?"

Arratiako Mobimentu Feministek lehendik be landu dau gaia, berbaldiakaz. Aurrerago be prebenzorako berbaldi bat antolatuteko asmoa agertu dabe. "Zer egin ahal dogun eta zelatan ikusteko. Idea da gero eta gehiago sinistea umeak, hau arazo larria da eta gero eta jente gehiago adi egotea gura dogu. Prebenzino moduan jakin behar da zer detektau eta zelatan detektau".

IGORRE

Haur Zerbitzuko arduradunen epaiketarako ez dago fetxarik



Erredakzioa

Abuztuaren 4an hiru urte beteko dira Bizkaiko Foru Aldundiko Gizaratekintza Sailak Igorreko Irune Costumerori alabea kendu eutsanetik. Probintzia Auzitegiak Haur Zerbitzuko arduradunen kontrako hiru inputazio-auto emon ditu; 2017, 2018 eta atzena 2019an, baina oindino ez dago fetxarik epaiketarako. BFA epaiketea atzeratu guran dabilala salatu dau Costumerok. Harrezkerotik epaiketarako fetxak ipini diran arren, Foru Aldundiak beti atzeratzea lortu daua.

Bizkaiko Probintzia Auzitegiak 2018ko abenduan emondako autoak, Costumerori umea kentzean "delitu zantzuak" ikusi eta Sergio Murillo Corzo, orduan Autonomia Pertsonala Sustatzeko Zuzendari Nagusia Gizarate Ekintza Sailean eta oin Gizarate Ekintzako Diputadua inputau eban. Baita Balorazino eta Orientazino Zerbitzu burua, Haurtzar Zerbitzuko burua, eta gizarate langile bat be. Eta Bizkaiko

Foru Aldundiari "jagokoa" erantzukizuna egotzi eutsan. Diario 16k, sententzia egon arte, Foru Aldundiak ez daukala umea amari bueltatzeko asmorik egiazatu ahal izan daua dino.

Harrezkerotik epaiketearen zain dagoz, baina 2020ko abuztuaren oindino ez dago epaiketarako fetxarik.

Umea laguntza eske

Eginbide baten arabera, garagarrilaren 13an, aita Gizarate Zerbitzua jakinarazi eutsen umeak beste ume baten amari esan eutsala, "aitak bahituta daukala" eta epaiketea irabazi ezkerok, "aitak ama hilko daua". Aitaren aldeko aitita-amamen agresibidadeaz be kejetan zan umea.

Aitak Foru Aldundiari horren bari emon ostean, Haur Zerbitzuko teknikari bi joan ziran umea opor-erak pasetan egoan herrira, umeak esandakoaren lekukoagaz berba egiteko. Hori dala-eta, Foru Agindu bat atera dabe, barriro be, umearen amaren kontrako.

Bisita egunak dirala-eta, Irune Costumerok kontraesaneko aginduak jaso ebazan ondoren, bisita bat galduz.

Garagarrilaren 21eko Foru Agindu batek zaintza partekatua ezinezkoa dala eta umearentzat amagaz egotea kaltegarria dala balorau eban barriro be. Foru Aginduak, kasu honengaitik inputautu dagoan Sergio Murillo Foru Diputaduren sinadurea dauka.

ARRATIA

Jaiak oroitzeko sasoia

Erredakzioa

Uda sasoiaren, COVID-19aren aurretik, abuztu hasten zan Lemoako jaiak hasita, sei bat egun lagunartean ondo pasetako jarduerak beteak. Hilaren erdian Zeanuriko andramariak ospatuten ziran eta hilaren amaiera aldean, Areatzak ospatuten ebazan herriko jaiak. Auzuneak jagokienean, abuztuaren, Dimako Artaun auzuneko San Bizente jaiak, Zeberioako San Adrian Argiñao auzunean eta Zeanuriko Otzerimendiko sanjustoak izaten ziran hileko lehenengo jaiak. Hilaren 10ean, San Lorentzo jaiak edo sanlontxoak, Bediako Murtatzen, Lemoako Azurrekan eta Zeberioako Elizondan ospatuten ziran. Hilaren

erdian, Igorren eta Zeberioan be egiten ziran jai batzuk eta hurrengo eguna be, ospatuten zan leku askotan: Dimako Olazabalen eta Bediako San Roke ermitan, berbarako. Hilaren 24an, sanbartolomeak ospatuten ziran Igorreko Urkizun eta Zeberioko Urizarren.

Aurten, COVID-19a ez hedatzeko osasun neurri moduan, jaiak bertan behera itxi dira. Ha-ta guzti be, Lemoako Udalak, "San Inazioak ez ditzagun ahaztu" lelopean, hainbat jarduerak online antolatu ebazan udalaren plataforma digitaletan garagarrilaren 31n eta abuztuaren 1ean.

Zeanuriko, abuztuaren 13tik 16ra Andra Mari kulturalak antolatu dau Udalak. Horrekin jakitera emoteko

Andra Marietako Kartel Lehiaketea be egin eban eta Mikel Intxaurre nagusietan eta Gotzon Erkiaga umeen kategorian izan ziran irabazleak. Hilaren 13an, Gorbeiape txapelketako esku pelota partidua, 18:45ean hasiko dira. Hurrengo egunean, 12:30ean, *Piraten istorio bat*, umeentzako antzerkia egongo da ikusgai; 18:30ean, Ardi Txakur Txapelketea eta 22:00etan, Korrontzi taldearen kontzertua. Zapatuan, hilak 15, pintura erakusketek egongo da goizean zehar; 11:00etan txistulariak egongo dira; 19:00etan, Rojo Telon taldearen kontzertua eta 22:00etan, *Ez dok hiru* antzerkia. Domekan amaituko da eskaintza kulturala, Gorbeiape Txapelketeagaz 18:45ean; umeentzako pelikula batez 18:30ean eta *Iparragirre hegalaria* antzerkiaren grabazioaren proiektuagaz

iluntzeko 21:00etan.

Aurten, aurten herriko jaiak bertan behera ixtea ebatzi dau Jai Batzordeak. Jentearen parte hartze txikiak kejetan da eta udagoienean, datorren urteko jaiak antolatzeari ekingo deustala adierazteko dau.

Zeberion, herriko jaiak, sandoniak, urri lehenengoaren 2aren bueltan izaten dira eta normalean abuztuaren amaieran hasten da jai egitaraua. Baina aurten, COVID-19aren agerraldiak dirala-eta, Udalak ez eban jai ekitaldiak aurreikusten garagarrilaren amaieran.

Mezak ermitetan

Formatu txikiko jaiak dira auzuneetakoak eta ermita ingurukoak. Askotan, meza ermitan eta ondoren barauskarria baino ez da izaten. Batzuetan, horri karta joko txapelketaren bat edo lehiaketa


gastronomikoren bat gehitzen joko egitarau apalari. Aurten bertan behera geratu dira jaiak baina momentu bakotxean zeintzuk izango diran pandemiari aurre egiteko indarrean egongo diran neurriak jakin ez arren, leitekera da ermitetan mezak behintzat, mantendutea. Beti be, osasun neurriakaz. Holan, esate baterako Santiagos egunean, Arteaiko Santiagos ermitaren kanpoan ospatu eben meza, eleiztar kopurua handia zalako eta distantziak gordetzeko. Ipiñaburur barriz, eleiza barruan egin zan meza, distantziak gordez.

San Lorentzo egunean, abuztuaren 10, meza eta ondorengo barauskarria programatu daukie Bediako Murtatzen, baita Briska Txapelketea arrastian be. Eta San Roke egunean be, adiera bereko Bediako ermitan, meza eta barauskarria.

ZEBERIOKO SORGINAK 1555. URTEAN

Sorginkeriatik harago, oinazea Arratia-Zeberion

Zeberioko OnaKaos eta Gazte Asanbladeak antolatua, Aste Kulturalak zikloaren barruan, garagarriaren 4an, Zeberioko sorginai buruzko berbaldia entzun genduan Zubialdeko aterpean. Alkarren arteko distantziak egoki jagonez, han egon ginan entzule asko gaueko iretargiak eta herriko hizlariak argitzen eben sorginai buruzko lainopeari darion 4 mende t'erdiko historia entzuten.



- + **Martin de Ypiñazar, vecino de la Anteiglesia de Çeanuri, por blasfemia herética.**
- + **Marina de Aquesolo, vecina de la Anteiglesia de Dima, por proposiciones heréticas.**
- + **Marina de Ortuondo, vecina de la Anteiglesia de Abadiano por cosas de bruñerías.**
- + **Luçia Guínea, mujer de Martín de Alçibar, vecina de Villaro, por proposiciones heréticas.**
- + **Marina hija de Juan Garçia de Padura, vecina de Gueñes, por proposiciones heréticas.**
- + **Teresa, mujer de Martín de Padura, vecina de Lemoa, por blasfemia herética.**

Kepa Perez Urraza

Inkiszinoia Arratia inguruan

Reguera irakasleak dinoskunez, Aro Modernoan sorginkeria heresiatzat hartuko da, eta ondorioz, sorgin, azti eta siniskeria arloak erlijino katolikoaren aurkakoak joko dira. Nafarroako kasu ospetsuez gainera, XVI. mendeko lehen erdian, Bizkaian, Inkiszinoak 3 ikustaldi burutu ebazan: 1528an, Carranza Doktoreak, 1538-39etan, Valdeolibas eta Olazabal lizentziaduak, eta 1547an, Ybarra lizentziaduak (Reguera 1989, 212).

Horren arabera, 1538-39 urteetan, Calahorrako Inkiszinoak aginduta, Bizkaian 187 persona penitentiatuak izan ziran, hau da, sorgintzat salatu, atxilotu, torturatu, epaitu, zigortu eta kondenauak. Guztien izen-abizenak eta zein herrikoak diran zehazten da. Gure inguruari jagokonez, Inkiszinoaren ebazpena jaso ebenen artean, besteak beste, Orozkoko 21 kide, Zeberioko 18 eta Arratiako 22 dagoz. Zeberioztarri buruz esan, penitentiaturiko batzuk, hurrengo 1555eko sarekadan be atxilotu ebezala. Arra-

tiarren artean, izen batzuk aitzate aldera, horra Inkiszinoen pape-retako fotokopian agertzen diran sei herritatik lau Zeanuri, Dima, Areatza eta Lemoa dira (AHN, 785 Lib., 27r fol.).

Zeberio, 1555eko salaketa kriminala

Zeberioko sorginak deitutako auzia, herriko 23 personen kontra garatu zan auzi zibil bat da. 1555eko udaran hasi zan, Juan Arana Areilza zeberioztarri salaketa kriminal bat Bizkaiko Korrejimentuaren Auzitegian aurkeztu ebanean. Prozesu honetan 8 urte eukazan Katalintxe Gesalaren aitorenak berebiziko eragina izango dabe.

Konplejutasun handiko auzia izan zan, batetik, 1539ko ebazpenak eragina izan ebalako 1555ekoan. Bestetik, hiru salaketa eta helegite ugari egon ziralako. Atzenik, inplikautako zeberioztarren kopurua oso handia izan zalako, 100 personatik gora.

Katalintxe Gesalaren aitorenak Zeberion sorgintzat salatuak ziran personai honako delitu eta

gaiztakeria bilduma egozten eutseen: 1) Sorginkeria, aztikeria eta konjuroak burutzea. 2) Siniskeriak erabiltea: kurutze-balioaz, oilarraz, landareez... 3) Ukenduaz igurtzea eta airean hegaz egitea. 4) Petralanda deitutako larran egozan ospakizunetan parte hartzea: jan-edanak, jantzak, sexu jarduerak "contra natura" burutzea; Belzebul deabrua gurtzea; Jaungoikoa, Amabirijina eta Santuak ukatzea. 5) Soloetan hautsak bota eta frutak galtzea. 6) Ume txoai odola xurgatu eta erailtea. 7) Bestelako deabru-arteak.

Katalintxeren aitorenak hari honetatik joan ziran: Petralanda larra eta Uribarriko teileria ezetuten dauzala. Petralanda zelaia ez dakiala non dagoan eta inoz ez dala egunez egon, baina bai gauez, hiru gautan, beste sorgin batzukaz. Katalintxek kontetan dauanaren arabera, Areiltzako Pero Ortizen Beaskoetxea baserrian neskame egoala, eta ohean lotan, gizon baltz batek eta burua estalia eukan andra batek Presalde aldera atera eben eta jo eta ostikoka tratu txarrak emon eutsiezan. Handik hilabetera, etxe berean egoala, halako baten, Ereñotza auzoko Juan Barrenetxeren baserrian aurkitu zala. Bertan, 16 persona ezagunak identifikatu ebazan eta Juan Ereñotzak lapiko batetik ukendua aterata, guztiak gorputz osoa igurtzen ebela. Eta holan gantzatuta, Petralandara hegaz joaten ziralako.

Petralandan zer egiten zan itaundurik, Katalintxeren erantzuna zera izan zan: persona nagusiak jantzatu, eta txikerrak bazter baten jarrita egoten ziralako. Gero, zidar itxurea eukan pitxar batetik, Belzebulen txiza edaten ebela, sabore garratza eukana. Bitartean, batzuek besteak sexu erlazinoak eukiten eben. Atzenean, Juan Ereñotzaren etxera hegaz itzultzen ziran.

Juan Arana Bezurtenek adierazoten dau, Olabarrietako persona batzuei entzun eutsela, lgorreko neska batek ikusi ebala Argiñaoko Marina Argiñanok gaitainondo baten igonda eta lapiko baten eukazan hautsak zugatzari botaten eutsazala. Juanetxa Solatxia lekukoak adierazoten dau




Zeberioko Adarragako soloak. 2000 urtea.

sorginak soloetan gariak eta frutak galdu arazoz, "mal de heredades" burutzen ebela. Hurtuño Etxebarri dino, 1538an, Bastiana eta Maria Otxoa Gesalak (ordu 8 urtekoak), esan eutsiela sorginak zirala eta Adarragako soloetatik hegaz ibiltzen ziralako.

Zeberioko 17 andra eta 6 gizonen atxiloketea. Euren defentsea

Sorgintzat salatuak izan ziran aurkako lekukoaren aitorenak jasoten ebazan bitartean, aurretiko informazioan oinarrituz, abuztuaren lehenengo egunetan, Pedro Pilla epaileak Zeberioko 23 persona atxilotu eta euren ondusunak bahitu egin ebazan. Lehenengo biak Diego Ginea, Areiltzan atxilotua, eta Maria Otxoa Gesala Zubialden. Hirugarrena aldiz, Ereñotza auzoan Juan Barrenetxe, bere emaztea, ama eta arreba eta eurekazi bizi zan Bastiana Aldekoa. Juanek 24 urte daukaz, eta Barrenetxe baserriaren jaube zan ezkerreko, etxea eta ondasun guztiak (ohe, abere, tresneria...) bahitu egin eutsiezan.



1555eko abuztuaren 14an, Zeberioko 17 andra eta 6 gizon, Bilbon espetxeratuak izan ziran,

besteak beste, Diego Ginea, Pedro Gorositu Muxika, Juan Arandia Isasi, Pedro Hereño, Maria Otxoa Gesala, Ereñotza auzoko Barrenetxetarrak, Bastiana Aldekoa, Maria Arrugaeta eta Maria Ibanes alaba, Maria Amezola, Maria Ibanes Argiñano...

Behin, kartzelan egozalarik, eta euren poderea Prokuradoreari luzatuz, Juan Aranaren aurkako salaketari aurre egiteko defentsea prestatzen hasi ziran. Sorgintzat joak eta atxilotuak egozan argumentazioa honetan datza: zuzenbidez txarto aurkeztua; ez zalako argitzen eurak sorginak ziranik; persona zintzoak, ospeko aitonen- seme, kristau onak eta elizkoiak dirala eta sakramentu santuak hartzean dabezanak. Aurkariak ez dabela ezelango frogarik aurkeztu; lekukoak entzunaz bakarrik aitorenak egin ebezela. Katalintxek 10 urte baino gutxiago eukazala, jakituria gutxiago dala, zentzu aldakorrekoa, eta neskak Petralandan gertatzen danaz kontetan dauana deabruaren engainua dala.

Juan Aranaren bigarren salaketea

Sorginen auzia hartzean egoan itxurea, nonbait ez zan Juan Aranaren gustukoa, eta bigarren salaketea aurkeztu eban. Eta oingoan, ia 40 bat salatzaile gehitzen jakoz. Argumentazioa aurretiaz aurkeztuaren antzekoa da: aspaldion aitatu sorgin-delinkuenteak ea aztikeria edo sorginkeriak, erabilten dabazan: ukenduak egin, hegaz ibili, Belzebul gurtu, umeak jipoiu...

1555eko urri lehenengoa eta zemendia bitartean, ustezko sorginen aldeko lekukoak aitorenak

burutzen dabez. Lekuko guztiak sorgintzat joak izan ziran aldeko erantzunak emoten ditue: jatorrizko bizkaitarrak dirala, kristau onak eta ospe onekoak, sorginkerietatik aparte bizi dirala... Horrez gainera, Katalintxe Gesala neska arina eta errazonamentu gitxiak dala, eta honen amari alaba erdizetakoan gertatutakoa, berbaz berba errepetiduten dabe: amak sabelean deabrua daroala.

Prozesuak luze joko daua-lakoan, Prokuradoreak atxilotuen errubakotasuna frogatutaz emonik, fidantzapeko askatasuna eskatzen dabe. Zemendiaren 4an, korrejidoreak auzia amaitutzat jotzen dau eta horren arabera ebartziko daua dino.

Jurisdikzino aldaketak. Helegiteak

Alonso Perez Arteaga korrejidore eta epaile funtzinoa aldi berean beteten ebanak hauxe ebartzi eban: sorginkeriaren gaineko auzia ikusita, Calahorrako Gotzaitagiko Inkisidore Jaunen eskuetan ixtea. Baina inkisidore bik esan eben Zeberioko auzian ez egoala ez heresiarik ez eta apostasiarik, eta auzia Bizkaiko Korrejimentura itzultzen da.

Bitartean, 24 urte eukazan (Se)Bastiana Aldekoa Ereñotza auzoko Aldekoa baserriko alabeak, korrejidoreak (Bastianak tormentua jasatea agindu eban) emondako ebazpenaren kontra jo eban, baita Valladolid-eko Epaile Nagusiak harturiko ebazpenaren aurka be, Bastiana Bizkaiko Jaureritrik urtebetez deserriratu eban eta. Beraz, Bastianak bere desadostasuna agertzeko Erregearen aurrean, "suplikazino graduak" deitutako helegitea aurkeztu eban. Erregeak errazioa emon eutsan Bastiana Aldekoari, eta ondorioz, ezabatu egin ebazan aurreko instantzia bietan Bastianaren kontra emoniko ebazpen biak: torturatua izatea eta deserriratzearena.

Hegas Benegas korrejidorearen aurrean, Juan Aranek bere 3. salaketea aurkeztu eban, eta 1558ko bagilaren 7an eskatzen dau, sorgintzat salatutako egon ziranak atxilotzea, zigortzea eta deabruaren zerbitzutan dagozanak aurkitzea: "y se descubran los demás malechores de la dicha secta de xorquinos y xorquinas que sirven al demonio...". Bagilaren 30ean, auzia hasi zaneetik hirugarren urtera, Iñigo Barrenetxe Prokuradoreak zera argudiatzen dau Benegas Jaunaren aurrean: bere ordezkioak Bastiana Aldekoagaz batera salatuak izan zirala, aurreko korrejidoreak Bastiana torturatzea agindu ebalak, eta honek apelatuz, eta irabaziz, aske geratu zan ezker, gauza bera gertatu behar jakiera bere

ordezkoai.

Ha-ta guzti be, Hegas Benegas korrejidoreak Zeberioko Diego Ginea, Maria Saez ama, Juan eta Maria Ibanes Barrenetxe eta Maria Otxoa Gesala, bostak "ur eta kordel" tormentua hartzera kondenetan ditu. Salatuen defensek Valladolideko Kantzelaritzara helgitzen dau. Bere ordezkioak aske gelditzeko hiru argudio erabilten ditu: 1) Errubakotasuna frogatua dagoala. 2) Aitonen-semeak dirala. 3) Bizkaiko Foruak debekatzen daua bizkaitarrak torturatzea.

Auzi honetatik atera daikengun jakintza

Oin dala 450 urte inguruko dokumentu historiko baten gordetzen dan informazioa, ondare historiko-kultural parebako lez jo beharko geunke. Espediente judiziala dan "Zeberioko sorginen auziak", XVI. mendeko gizarteaz hainbat ataletako ezagutza eskaintzen deuskue: sozio-ekonomia, etnografia, hizkuntza...

Sorgintzat salatutako persona guztiak haragizkoak eta arruntak izan zirala esan daikengu. Baina bizi, Inkisizinoak sortu eta eragin eban bildur giroan eta gizartean murgildurik egozan, non pentamentu librea ezabatu egiten zan. Jadanik, askok kritikau dabe Santo Ofizioa dalakoak suposatu eban errepresino fisiko eta ideologikoa, hasikeran judutar, morisko, luteranismo, sexualidade, eta ondoren, sorginkeria zalakoan hainbat praktika herritarren aurka. Ez zan egiaren bila joaten, erruduntasunaren aitortza torturaren bidez bilatzen baino.

Zeberioko ustezko sorginak pleitu osoa gaztelera hutsez idatzia badago be, euskereagazko erreferentzia zuzen ugari dagoz, batez be, 3 eremutan: itzulpen

arloan, toponimian (Zeberioko auzoen eta baserrien izen ugari), eta ahozko tradizioan. Eta aberatsa da etnografia atalean: baserriko tresneria lanabesak, aspaldiko neurriak... Eta denpora neurtzea be era berezian emoten da. Maila bi dagoz: naturala (hilbeteko gau baten, oilarrak kukurraka egitean...), eta erlijiosoa: San Juan eta Erramu egunez, San Bartolome bezperrea, Gabon gaua... Dakigunez, San Juan eguna eta Gabon gaua kristautasunaren aurretiko euskal elementuez osotutako jaieguna dira, eta horrez gainera, Zeberion sorgin kontuez lotuak.



San Juan eguneko lizarra Gorositun. 2000 urtea.

Auzian inplikaturiko giza-komunitadea

Katalintxe Gesala umearen nortasuna aztertzerakoan, kontuan hartu beharra dago bere aurrekariak eta zirkustantzia personalak. Batetik, guraso biak. Aita mehatxazalea, eta amari, lekukoak egotzitako aitorenak egiak balira oso

latzak ziran, jaio aurretiaz maitasunik bako izakia zan-eta. Bestetik, oso txikitan umezurtz bikotxa, neskame, sarritan jipoitua, lehen aitorenaren, 7 urteko adina, eta aitorenak egiterakoan, gertarak beti gaubez, lotan egoala iratzarria, euskerazko erantzunak erdarara itzulita, jente arrotzen aurrean (epaile, eskribau, abade), eta horrez gainera, aitoren kontraesankorrak eta aurrez aurreko saio tensinonatuak. Lekuko batzuentzat, Katalintxek neurosia eban.

Maria Otxoa Gesala, 1539an, 7 edo 8 urte eukazana, eta Inkisizinoak ezarritako oholza gainean Bilbon egon zana. Gainera Juan nebak mehatxatua, eta oso gazte neskame Pedro Ortiz Areiltzaren etxean. Ha-ta guzti be, egoera tristean, loba batek salatu eban eta. Eta pobrea, Zubialden atxilotzera joakon epaileak ezin deitso ondasunik bahitu eta.

Bastiana Aldekoa Ereñotza. Baserri oneko alabea. Dirudiane, Maria Ibanes koinatak ez eban gustukoa, eta Barrenetxetarren baserrian bizi da, sendiak dira-eta. Agian, Santxo nebak lagunduta edo, Bizkaiko Korrejidoreak emondako ebazpenaren kontra joko dau, Chancilleriako Epaiaren aurka be bai, hari eta Erregearen eskutik erabateko errudunbakotasuna lortu arte. 24 urte izateko, andra burrukalaria.

Gizonezkoen artean, Juan Barrenetxe eta sendi osoa, beharbada afektadua da, kide guztiak jarritako diru kondenea dala eta, Barrenetxe baserria mendetan zehar hipotekauta egongo da, eta okerrago, bere zenbait ondasun salduak izanik, berreskuraketan esfortzu eta izerdi handiak egin behar izan ebezan ondorengo oinordekoak.

Zeberioko orduko komunidadea eta gatazka sozial honen hiru ustezko kausak:

1. Patroi/Infantzoien arteko banaketeak ez dau lar argitzen auzia.

2. Auzo bereko auzokideen arteko ezinikusiak eragina euki leike ordukoa zeozer argitzeko: mugakide diran auzoen solo, baso eta bidez gatazkak egotea. Esaterako, Urizarri eta Gorosituko artean, Ereñotza eta Solatxikoen artean, edota, Areiltzako Goikoetxea baserrian Marina Torrezar eta Diego Ginea hormaz horma bizitea.

3. Sendikotasuna: Maria Otxoa izekoa eta Katalintxe, izeko lobak dira. Ereñotza auzoan, Aldekoa eta Barrenetxetarrak sendikotasuna dabe. Bastianaren aurka lekuko gogorra da Maria Ibanes koinatea.

Gertaera honek ezinbestean, egundoko oihartzuna eta herri mailako inplikazioa suposatu eban: 23 salatu, 21 salatzaile, 40 lekuko ustezko sorginen aurka, 16 kide salatuen aldeko lekukoak, 100 persona justu, gehi bermariak, aurretiaz ustezko sorgin hilak... Edozein modutan, epaiketa zaila, herri osoarentzat garratza, ondorio latzak itxi ebazana. Hemen, Caro Baroja antropologoaren hausnarketeagaz gelditzen gara: "(Imaginémonos) a muchas pobres mujeres y hombres encarcelados, llevados de aquí a allá, esperando la sentencia... Pensemos también en familias afrontadas, en matrimonios desechos, en vecindades destruidas por el odio" (1987, 154).

Laburtuz, historian zehar, sorginkeriatik harago, min eta oinazea Arratia eta Zeberio haranetan.



PELOTEA

Amaia Aldayren sakea erabakiorra izan zan jokaturako azken saioko binakakoa irabazteko

Plazandreak ETBko eskupelotako lehiaketaren hirugarren saioa jokatu zan garagarriaren 30ean.

Erredakzinoa

Saio haretako hiru partiduak irabazi ebazan Amaia Alday pelotari dimoztarraren taldeak. Iera Agirrek, Arrate Bergarak eta Amaia Aldayk osotuten dabe taldea eta Mikel Inuntziaga da euren entrenatzailea. Lau talde dira eta sailkapenean hirugarren dagoz hiru saio

jokatu diranean eta baten faltan.

Saio bakoitzean buruz buruko partidu bi eta binakako bat jokatzen dira. Atzenengo saioan, Amaia Alday bakarrik binakakoa jokatu eban Arrate Bergaragaz batera. Andrea Aldaregia eta Olatz Ruiz de Galarretari 5-12 irabazi eutseen. Saioko beste partiduak be Aldayren taldearentzat izan zi-

ran. Lehenengoan, Naroa Agirrerri erraz irabazi eutsan Iera Agirrek, 2-12 eta hirugarrenean be, antzera gertatu zan Andrea Aldaregia eta Arrate Bergaragaz. Atzen emaitza 6-12 izan zan Bergararen alde.

Aurreko saioan barriz, hiru partiduak galdu ebazan dimoztarraren taldeak. Amaia Alday buruz burukoak jokatu ebazan eta biak galdu ebazan. Lehenengo Olatz Arrizabalagaren kontra 12-10 eta bigarrena, barriro be aurkari beragaz 12-11 galdu eban. Binakakoan, Iera Agirre eta Arrate Bergarak, Irantzu Etxebeste eta Nora Mendizabalen kontra 12-8 galdu eban.

Lehenengo saioan, garagarriaren 9an be buruz burukoak jokatu ebazan Aldayk Leire Garaireren kontra; biak 12-2 irabaziz. Binakakoa, Iera Agirrek eta Arrate Bergarak jokatu eban Ainhoa Ruiz de Infante eta Maite Ruiz de Larramendiren kontra eta 7-12 galdu eban.



Etxeko Janaria Zure Etxean

Jandoniz Egoitzaren Zerbitzu Berria

Betiko janarian zure extea

Etxera eramateko janariaren zerbitzuak dieta orekatu eta osasuntsua eramaten laguntzen die gure nagusiei, etxean bertan. Karta-zerbitzua da; bazkaria, afaria edo biak eska daitezke astean nahi duzun beste egunetan, inolako konpromezurik gabe.

Neurrira egindako dietak

Askotariko menuak ditugu, testura ezberdinekin eta zure beharrianetara egokitutako dietak.

Banatu baino askoz gehiago

Banatzailak astean hiru aldiz bisita egiten dizunean iraugitze datak begiratuko ditu. Termoseilatatu bidez ibitako ontzietan banatzen da janaria, kalitate osoa bermatuz.

SARRERA
PLATER NAGUSIA
OSAGARRIA
POSTREA
OGIA
8,95€
BEZ-a barne

1 BANAKETA
Eskaria aurreikusitako ordutegian helduko da

2 BANATZAILE JATORRA
Banatzaileak aurretik utzitako janaria berraztertu eta eskari berria utziko dizu

3 INFORMAZIOA
Ontziak nutrizio informazioarekin eta iraugitze datarekin etiketatuta daude

4 KONTSERBAZIOA
Ontziak hozkailuan gorde behar dira kontsumo unera arte

5 PRESTAKETA
Plastikoa zulatuta eta berotutuan 3 minutuz mikrohuin labean

3 MINUTUAN PREST

GOGORATU!!! Behin ontzia irekita, 24 orduko epean kontsumitu

JANDONIZ NAGUSIENTZAKO ETXEA
JANDONIZ, 2 KALEA
48390 BEDIA
INFO@RESIDENCIAPARAMAYORES.JANDONIZ.ES

946313130

PELOTEA

Txumuluxuetak irabazi dau Mugarri desafioa

Erredakzinoa

Dimako Txumuluxueta eta Zea-nuriko Joko Alai neurtu ziran garagarriaren 11n Zea-nurin. Hiru partidu izan ziran: binakakoan, Zea-nuri nagusitu zan; buruz burukoak barriz, frontoi osokoa zein lau t'erdikoa, biak irabazi ebazan Dimak.

Binakako partiduan, Joko Alaioko Etxeita eta Emaldik, Txumuluxuetako Zapiko eta Ziarrusta II.aren kontra jokatu eban. Partiduan zehar aldaketa handiak egon ziran markagailuan. Izan be, dimoztarrak hartu eban aurea hasieran, gero zeanuriztarrak, barriro be

Dimakoak 15-18 jarri ziran aurretik, eta atzenean, Zea-nuriko Joko Alaiokoak irabazi eban partidua 22-18.

Lau t'erdiko partidua parekatua izan zan. Joko Alaitik Mendia eta Txumuluxuetatik Ekhi Ziarrusta neurtu ziran. Dimakoak 22-19 irabazi eban, partidu osoan jokalaria biak pare-parean ibili ostean.

Puntu bana beraz, eta gazteak ebatzi behar izan eban zein talde izango zan irabazlea. Beitia zeanuriztarrak ez eban euki bere egunik onena eta Rekalde dimoztarrak barriz partidu sano ona egin eban. Azken emaitza, 18-12 izan zan Dimaren alde.



Graduazinoak
Ikusmen terapia
Ikusmen gubitua
Begiko tentsioa
Lentilen adaptazinoak
Kiroletarako betaurrekoak

Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es



Aurtengo Gorbeia Suzien bertan behera geratu da

Erredakzioa

Antolakuntzakoak garagarilaren 22an jakinarazo eban, Zeanuriko Gorbeia Suzien 2020 lasterketa aurrera aterateko ahalegin guztia egin ostean eta baimen guztiak lortuta izan arren, bertan behera itxeko ebatzia hartu ebela. Ebatzi

honen errazoa, ziurtasuna ezin dabelako %100ean bermatu, izan da. COVID-19aren positiboak dirala eta, "gauza guztien gainetik, lehentasuna emon deusagu parte hartzaile, bolondres, ikusle eta herritarren osasunari" dinoe.

Datorren urtean "inoz baino indartsuago" bueltetako asmoa be agertu dabe.

Munduko Txapelketea

Zeanuriko lasterketea, Munduko Txapelketearen barruan egotekoa zan, Migu Run Skyrunners Series zirkuituan, hain zuzen be. Hiru kontinente eta 13 herrialdetako 17 lasterketak osotuten eben Munduko Txapelketako zirkuitua eta Gorbeia Suzien euretako bat zan. Munduko Txapelketea bagilean bertan behera geratu bazan be, Gorbeia Suzien-eko antolakuntzea, lasterketea mantendituen saiatu da.



Agurraren lezioa

Patxi Gaztelumendi

Gu ere bai!
guerebai.eus

Bertsolariak, saio amaierako agurrari garrantzia berezia emoten deutso. Doinuan eta forman. Txapelketan edo plazan. Agur asko gogoratzekoak izaten dira gerora. Maitasuna eta indarra dago berba bakoitzean. Keinuak edo esan barik be ulertzen diran kontzeptuak. Agurra garrantzitsua da gure kulturaren, gure bizimoduan.

Eta holan ulertu behar doguz kirolari profesionalen agurrak be. Maite daben eta bizitza guztia hori lortzeako burrukan ibili diran talde bat edo ekipa bat agurtzeak ez dau erraza izan behar. Eta horregaitik, sano garrantzitsua da agur hori barru-barrutik egitea. Bizi dozun moduan. Adierazo dozun hori ahalik eta argien agertzea. Oindino gehiago biziten gabizen egoera honetan. Ikuslerik ez daukan agur bat zelaian, golak oihartzunik ez daukien partiduak. Imajinetan do-

zue, besoa eta eskuagaz agur esan, eta kalean inor ez egotea? Agur San Mames huts baten esatea? Hori be gogoan hartzeak kontua da, oin eta gerora be bai.

Agurrak, gaur egungo tresnen bitartez be egiten dira. Hedabideak edo sare sozialak. Eta batzuetan, oihartzun hori biderkatu egiten da internet bidez. Eta munduari buelta emoten deutso, edo guztiz oharkabean igarotzen da. Ez dago jakiterik. Baina, sarean be berba bakoitzak bere esangura eta sakontasun guztia dauka. Garrantzitsua da zer esaten dan, zelan esaten dan.

Eta aspaldi honetan, gure kirolari ezagunenak -futbolariak- agurrak euskeraz adierazoten dabiz. Aritz Aduriz, Mikel San Jose, Beñat Etxebarria edo David Zurutuzak egiten daben moduan. Bizi daben hizkuntzan. Etxean berba egiten daben moduan. Amaren bularretik jaso eben hizkuntzan. Amesten daben moduan. Gura daben eran. Eskubidea dan letxe.

Kirola eta euskera

Eta kirolariak, ordezkari politikoak baino euskaldunagoak dituan herri batekoak gara gu. Eredugarriago be bai, esango neuke nik. Kirola euskeraz egitea gura dogu, baina gero kirolariak eurak euskeraz baino egiten ez dabenean, agertzen gara ba euren alde? Beñat Etxebarria eta Mikel San Josek, 2020ko denporaldi amaieran agurtu dabe Athletic. Eta euren agurra sare sozialetan batera eta euskeraz zabaltzeak, hautsak harrotu ditu. Espainiartasuna as-

tindu dau. Franco bera lurpetik atararazo dabe. Eta euskaltzaleak asaldatuta geratu gara. Gure eskubideak murrizteko asmo bat agertu dalako bat-batean. Baina gure eskubideak aldarrikatzeko unea be badala ikusi dogu era berean. Eta talka horretan, kirolarienganako alkartasunak eta euskerearen aldeko jarrerak bat egin dabe, zorionez. Baina, badira be ostondu egin diran arduradunak. Politikariak. Eta horrek kezka areagotzera garoaz. Kirolari euskaldunak gura badoguz, euskaldun

moduan publikoan agertu eta agurtu diranean, zergaitik ez dira euren alde atera? Zergaitik ukatu deutsee agurra?

Kirolariak euskeraz bizitea gura dogu; eredugarri diralako, euskaldunak diralako, normaltasunez euskeraz bizi gura dogulako, kirolean eta eskolan, kalean eta sutean, herrian eta kalean. Hori da aldarrikatzen doguna, eta halan bizi dogu. Saiatzen gara. Eta horretan ahalegindu beharko dogu guztiok, kirolari eta kirolzale, euskaldun eta euskaltzale.



LEMOA 946 31 44 06 ZABAL@ALKIZABAL.NET

ALKIZABAL
LEMOA - BASAURI
www.alkizabal.net

BASAURI 946 51 05 99 BASAURI@ALKIZABAL.NET

MAKINEN ALOKAIRUA ETA SALMENTA

BANATZAILEA
POWER PRODUCTS
GENERGY

KULTUR ETXEA

Lemoako Kotxepin Kultur Etxeko lanak amaitzear dagoz

Erredakzioa

Lanak ia amaituta dagoz, erremate eta zehetasun txiki batzuen faltan. Baina lehengo Abadetxea, Kotxepin Kultur Etxe bihurtzea proiektu luzea eta karua izan da. Izan be, aurrekontuari jagokonean, hasikerako aurrekontua %15,5 hazi da.

Udalak kultur eskaintza oso eta oparoa emoteko eukazan espazioak 2012an hasi zan aztertzen. 2016ko bagilean, Bizkaiko Gozaindegiagaz Abadetxearen 40 urtetarako zesinoa sinatu eban, espazio hori kultur etxe bihurtuteko. Aurrekontua 1.099.445,32

eurokoa zan eta dirua diruzaintzako gerakinetik hartzea onartu zan aho batez osoko bilkuran 2018ko apirilaren 11n.

Baina guztira, 1.269.598,28 euro gastauko ditu Udalak egokitze lanetan, hasikeran aurreikusitakoa baino %15,5 gehiago. Garagarriaren 1eko osoko bilkuran onartu zan kontratu aldaketea, EH Bilduko botoakaz. Udaleko EAJ-PNV taldearen erretxian, inbersinoaren gehikuntza horrek kudeaketa txarra adierazoten dau eta "sentiduten dau azpiegitura propio baten inbersinoa egiteko aukerea galdu izana".

Birgaitze lanak

Kultur etxe moduan erabiliko dan eraikinak urte asko ditu eta lanak egin ahala arazo eta gabeziak agertu izan dira. "Ez dogu eraikin barri bat egin, existiduten zan eraikin baten birgaitze lanak baino. Eta lan honeek askotan aurretiaz ikusi ezin diran arazo eta gabeziak dakar, birgaitze lanakaz batera agertzen dira eta momentu horretan emon behar jakie erantzuna. Adibidez, saneamentu eza, zimenduetan arazoak... Horreek guztiak konpondu behar izan dira eraikina teknikoki egoki eta erabilgarri egoteko" azaldu deutso BEGITU Saioa Eleja-

barrieta Lemoako alkateak.

Bere esanetan, agertu diran arazo eta gabeziak zehatz zehatz aztertu dira eta erantzun egokiena emon jakie, "beti obra partida guztiak ondo aztertuta bai arkitekto, arkitekto tekniko, segurtasun tekniko eta enpresa eraikitzailearen aldetik, honeek guztiak txosten tekniko zehaztutan azalduz, udaleko udalbatzari kontu emoteko".

Kotxepin Kultur Etxea

Kultur etxeak espazio desberdinak ditu: liburutegia, umeen liburutegia, ikasgela, talde lane-

tarako espazioa, herriko alkar-teentzako lan espazioak, egunerokotasunerako plaza, eta kultur ekintzak eskaintzeko espazioak.

Instalazioak prest egongo dira COVID-19a dala-eta hartutako neurriak kultureari emondako golpe latzaren ostean, eta lehengo kultura bizitza inoz berreskuratuko dan ziurbakotasun denpora honeetan. "Egoera latza bizi dogu, baina administrazioak be aha-lerinak egin behar ditu kultura sustatzeko. Eta nahiz eta egoera barri honetara moldatu behar, gure lana izango da kultura ez baztertzea" dino alkateak.



Oporretako Argazki LEHIAKETA

1. Parte hartzaileak: BEGITU Aldizkaria jasoten dauan edonor.
2. Argazkiak 2020ko oporretan egindakoak izan behar dira.
3. Aurkezten diran argazkiak, non, nok eta noz atera diran esan behar da. Gehienez 3 argazki bialdu ahal izango dira personako.
4. begitu@topagunea.com helbidera bialdu behar dira.
5. 2020ko urri lehenengoaren 25era arte aurkeztu daitezke argazkiok.
6. Epaimahaia BEGITU Aldizkariko erredakzino taldeak osotuko dau.
7. Epaimahaia urri lehenengoaren bigarren hamabostaldian batuko da epaia emoteko eta urri bigarrenean argitaratuko da BEGITUan.
8. Lehenengo saria: Persona birentzako astegoi bat Euskal Herriko landetxe baten. Sari gehiago egon daitezke, epaimahaiak egoki jo ezkerok.
9. Lehiaketa honetan parte hartzean dabenak honeek oinarriok onartuten dabezala esan gura dau.



KIÑU GAZTETXEA

Sabadell bankuak Kiñu Gaztetxeok kaleratzeko prozesua abiatu dau

Erredakzioa

Garagarriaren erdikaldean, hilaren 20an Bake Epaitegian aurkezteko zitazinoa jaso eben Kiñu Gaztetxearen erabiltzaileak. Epaitegietan dago Kiñukoak kaleratzeko prozesua, aurretiazko eginbide fasean; hau da informazio biltze fasean.

Zitazinoa "okupatzaile ezeza-

gunai" egoan zuzenduta. Kiñuko erabiltzaileak, hau da, Gazte Asanbladea eta beste gizarte eragile batzuk, bertaratu ziran epaitegian, euren esanetan, "okupatzaile ezezegunak izateari itxi eta okupatzaile izatera pasetako", beste errazoi batzuen artean. Gaztetxeok abogaduakaz dabiz egoerea aztertzen.



★ BEER & EDARIAK

Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17
Eduardo 647 72 96 24

Arkaitz 677 46 40 91
Galder 666 58 20 06

Pozuetako poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com



Umeen beharrianak erdigunean ipinita, udaleku itxiak egin ditu Dimestenenek

Erredakzioa

Dimako Dimesten Herri Hezitzaile proiektuak, COVID-19aren sasoian, umeen beharrianak kontuan hartuta udalekuak egin dauz. Erakundeak bultzatzen dabezan osasun neurrietatik harago, bestelango prebenzino neurriak erabili dabez. Holan, inoren eskubideak zapaldu barik, pandemia beste modu batez kudeatu daitekela be erakutsi dabe.

Udaleku txanda bi egin dabez. Garagarriaren 6tik 10era izan zan lehenengo txanda eta 13tik 18ra bigarrena. Lehenengo txandan, 4 urtetik LH2ra arteko 16 umeak, zuzendariak, sukaldariak, praktiketakoak, hezitzaile bik eta laguntzaile moduan bost gaztek hartu eben parte. Bigarreanean barriz, 26 umeak eta hiru hezitzailek, sukaldariak, praktiketakoak eta 3 laguntzailek.

Joana Esparta, Maitane Iza eta Lur Ziarrusta Dimestenenekoak azaldu deusie BEGITUri esperientzia hau.

Beste herrietan goiz edo arrastiko udaleku edekiak egin ditue, zuek barriz udaleku itxiak.

Hasikera-hasikeratik gauza batzuk argi ikusi genduzan, besteak beste, herrian bertan egingo genduzala udalekuak, kalidadezko aisialdirako aukerak sortuko genduzala eta umeen arteko harremanak sustatuko genduzala. Hortik abiatuta, udalekuetan zehar haurren arteko distantziak eta maskarak ez erabiltea ebatzi genduan, neurri horreez gure helburuak bete ezinak iruditzen jakuzalako.

Familia unidatea sortu eta udaleku itxiak egitea ebatzi genduan. Udalekuen aurretik partaide guzti- osasun egoera kontroletako konpromisoa hartu genduan eta udalekuetan zehar, "familia" unidatedetik kanpo egoan edonorregaz distantziak gordez. Udaleku itxietan, sortutako unidatedetik kanpoko jenteagaz kontaktu gitxiago dagoz, egunero ez diralako umeak etxera joaten eta beste jenteagaz kontaktuan egoten.

Laguntzaile moduan, herriko gazteak izan dozuez.

Bai, Gazte Abenturan izena emon ebenak. Horretarako aukerarik ez da egon eta eskaini jakien beste txandetan laguntzaile moduan ibilteko aukerea.

Umeak danak herrikoak izan dira, bat izan ezik. Azkoititik etorri da. Konfinamentuan, Dimestenenek hainbat ekintza eta erronka proposatzen eban egunero eta Facebookera igo. Ekintzok asko zabaldu dira, eta udalekuetako kar-

tela zabaldu genduan. Azkoitiko guraso batzuek idatzi euskuen esaten umea oso gustura ibili zala ekintzak egiten eta ilusinoak egingo eutsala Dimesteneneko udalekuetara etortea. Eta azkenean ebatzi genduan baiezkoa emotea.

Diman auzoz auzo ibili zarie oinez eta lo, lozakuetan, ezta?

Bai hori da. Eskatu genduan izan zan zakua eta esterillea eroatea ume bakotzak, hasikeratik argi itxita motxilea ez ebela eroango aldean. Azken finean, ume txikerrak dira, eta astebeteko motxilak pisua daukie. Txikerrak auzo bitan egon gara: Oban gau bi eta Indusin beste bi, ermitetan lo eginda eta txokoetan sukaldatuta. Nagusiakaz barriz, hiru auzunetan, Artaunen gau bat egin genduan, beste gau bat Oban eta beste gau bi Indusin. Eta egunero euren lo lekua montau eta desmontau egiten eben.

Diman egin genduzan udalekuak oingo egoereagaitik eta ikusi gendualako Diman leku ona genkuala udalekuetarako. Udalekuak egitea beharrezkotzat jo genduan eta kanpoan egitea baino seguruagoa zala herrian egitea iruditu jakun. Eta Diman auzoak, txokoak eta ermitak daukaguzanez, aukera hori emon genduan. Umeakaz batu ginan eta eurak ebatzi eben. Txikerrakaz lartxo zan hiru auzotan egitea eta bitan egitea ebatzi zan.

Euren proposamenetatik abiatuta, eta euren ahalik eta gehien kontuan eukinda antolatu genduan, errealdadera egokituta.

Udalekuetan umeak ez dabe maskararik erabili eta ez dozue distantziarik gorde. Ha-ta guzti be, ez da kutsaturik egon partaideen artean. Zeintzuk izan dira gorde dozuezan osasun neurriak?

Hasikeratik argi euki dogu umeen beharrianak beteteko ezinezkoa zala maskarea erabiltea edo-eta distantziak gordetea. Konbibilitzia unidate bat sortu dogu, familia bat balitz legez. Aurretik egin genduan berba gurasoakaz eta halaxe egin genduan. Udaleku aurretiko 15 egunetan, umeen familiak euren inguruan COVID sintomarik eukan edonor ea egoan adi egon dira. Baita begirale eta beste partaideak be eta arduraz jokatu dogu.

Gero udalekuetan be, egunero hartu deutsegu tenperatura partaide guztiai eta eskuak sarri garbitu doguz. Gainontzean, familia bat bagina lez, ibili gara. Konbibilitzia unidate bat.

COVID-19ak ez baina COVID-19ari aurre egiteko neurriak gogor jo dabez umeak: eskola barik, zarratuta, beste umeakaz egoteko aukera barik... Zuek dizozue argi euki dozuela inoz baino beharrian handiagoa egoala udalekuak egiteko.

Guk ikusten genduan azkenean etxean hainbeste denpora egonda eta, umeen eskubideak hain urrututa eta zapalduta egon diranez denpora horretan, inoz baino beharrezkoak zirala. Beharrezkoa zala udalekuak antolatu, egoera barri honetatik apur bat urten eta COVID-19aren aurretik geunkan egoerara bueltetako aukerea emotea. Umeak beste umeakaz egon behar dabe, besteakaz olgau. Eta hainbeste denpora pantaila aurrean ez egon. Guraso batzuek komentau deuskue konfinamentu hasikeran, umeak bideo-deiak egiten ebezala lagunakaz, baina gero, momentu batetik aurrera, ez ebela gura bideo-deirik, lagunakaz egoteko beharrian handia eukiela.

Lagunak ikusi eta ikutu behar ditue, eurekaz olgau eta ondoan

egon, azala beharrezkoa dalako. Izaki sozialak gara eta azala behar dogu. Gainera umeak euren edadekoakaz egon behar dira. Egoera desbardin asko dagoz baina etxeko ume bakarria diranak be badagoz.

Umeen eskubideak zapaldu egin dira konfinamentuan. Eurak izan dira urtetan azkenak. Itxidian gu umeen eskubideen alde agertu gara eta umeen eguna be antolatu genduan etxean zarratuta egon ziran azken egunean.

Oin be, agerraldiak dirala eta, umeen urtekerak jopuntuan dagoz: kendu ditue udalekuak, parkeak zarratutea be hartzean dan lehenengo neurrietako da... Uste dozue posible litzatekela pandemia kudeatzea umeen eskubideak errespetautu?

Bai, posible litzateke leku bakoetxean bere errealdadera egokitu-ta, guk egin dogun moduan. Beti be, umeai entzunda, eta euren beharrianak kontuan hartuta. Gizarte osoaren eskubideak hartu behar dira kontuan eta umeak ez dira etorkizuneko gurasoak, oingo momentuan be gizartearen parte dira, gizartean bizi diran personak. Euren eskubideak kontuan izan behar dira osasun neurriak hartzerakoan.

Hilabete luze asko pasau dabez umeak eskolara joan barik, eurentako asko udaleku barik eta beste umeakaz egon barik geratu dira. Laster hasiko da ikasturtea, zurrabotasun handiagaz. Pentsetan dot barriro be eskolara joan barik geratzea larria izan daitekela ume batzuentzat.

Kontuan euki behar da eskoleak daukan garrantzia sozializazioan. Ezin da online ikasketakaz ordezkatu. Ezta maila batetik aurrera be. Gaztetxoak euren parekoakaz egon behar dira euren nortasuna eregitoko. Izan be, komunitate baten parte sentidu behar dira.

Umeak isolatuta indibidualismoa bultzatu egiten da. Besteakaz egoten ikasi behar dabe, besteakaz kolaboretan eta komunitate baten parte dirala sentidu. Eta horretarako eskolea funtsezkoa da.



Eva Perez-Pons lemoztarrak Zaharkitze programatua poema liburua kaleratu dau

Erredakzioa

Eva Perez-Pons Andrade (Lemoa, 1995), Bilboko Udalak antolatuten dauan Blas de Otero Nazioarteko XII. Poesia Lehiaketean irabazi eban igaz liburu honegaz eta oin Erein argitaletxeak argitaratu dau. Lemoztarraren lehen poema liburua da.

Poema gehienak 2016 eta 2017 bitartean idatzi eban. Lehiaketarako bost ataletan antolatu eban gaika, eta atal bakoetxean hamar bat poema dagoz. Liburua Donostiako liburu azokan aurkeztu zan garagarriaren hasikeran.

Eva Perez-Ponsek industria ingeniaria ikasketak ditu eta Ikasketak Feminista eta Generoko masterra egiten dabil.



Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
Publizidadea: 649 979 115

begitu

begitu@topagunea.com
www.begitu.org

Kili-Kili
Amigo eta Puztutak

Lehendakor Agirre 10 - 40088 (Bilbo)
Tel.: 94 672 43 81



AGENDEA

ABUZTUAK 3
ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenerdik barikura Udal Liburutegia zabalik liburuak hartu eta ixteko. Hile osoan.

AREATZA

Hilabete osoan zehar, *Odonatoak uraren hegoak*, odonatoen gaineko erakusketea Parketxean. Aranzadi Zientzia alkar-teagaz alkarlanean.

ZEANURI

Zeanuri Loran 2020 Pisu eta etxeetako balkoietako III. Lora Txapelketea. Txapelketea abuztuaren 10era arte izango da.

**ZEBERIO**

Urri bigarrenaren 31ra arte, herriko

ingurua eta ekintzak gaitzat daukiezan argazkiak bialdu daitezke *udala. zeberio@bizkaia.org* helbidera 2021eko egutegia osotuteko Argazki Lehiaketan parte hartzeako. Argazkiak horizontalak izan behar dira baina ez panoramikoak.

ABUZTUAK 8
ZEBERIO

10:30ean, Gorbeia Turismo Jomugak antolatuta, Zeberioko altxorrak: Ermitabarri ibilaldia. Olabarrietako San Tomas eleizan.

ABUZTUAK 9
LEMOA

09:00etan, Arlonagusian, Lemoako Txirrindulari Elkarteak antolatuta, Arratiatik bizikleta urtekerea.

ABUZTUAK 10
BEDIA

San Lorentzo. 12:00etan, mezea Murtatzen eta ondoren barauskarria; 17:00etan, Briska Txapelketea

(bikoteko bat gitxienez herrikoa).

ABUZTUAK 13
ZEANURI

18:45ean, esku pelotako Gorbeiape Txapelketea.

ABUZTUAK 14
ZEANURI

12:30ean, umeentzako antzerkia *Piraten istorio bat*; 18:30ean, Ardi Txakur Txapelketea Torreko soloan; 22:00etan, Korrontzi taldearen kontzertua frontoian.

ABUZTUAK 15
ZEANURI

Goizean zehar, pintura erakusketea; 11:00etan, txistulariak; 19:00etan, Rojo Telon taldearen kontzertua; 22:00etan, *Ez dok hiru* antzerkia frontoian.

ABUZTUAK 16
BEDIA

12:00etan, mezea San Roke ermitan eta ondoren barauskarria.

LEMOA

09:00etan, Arlonagusian, Lemoako Txirrindulari Elkarteak antolatuta, Arratiatik bizikleta urtekerea.

ZEANURI

18:30ean, umeentzako pelikulea; 18:45ean, esku pelotako Gorbeiape Txapelketea; 21:00etan, *Iparragirre hegalaria* antzerkiaren grabazioaren emonaldia.

ABUZTUAK 22
ZEANURI

11:00etan, Gorbeia Turismo Jomugak antolatuta, Undurruga urtegiari itzuli gidatua. Plazan.

ABUZTUAK 23
LEMOA

09:00etan, Arlonagusian, Lemoako Txirrindulari Elkarteak antolatuta, Arratiatik bizikleta urtekerea.

ABUZTUAK 30
DIMA

13:00etan, Tio Teronen Semeak

taldearen jantza ikuskizuna. Abizarie eta Gazte Barri Dantza Taldeak antolatuta.

**LEMOA**

09:00etan, Arlonagusian, Lemoako Txirrindulari Elkarteak antolatuta, Arratiatik bizikleta urtekerea.

ZURE ZERBITZURA
Avia guztira 192 gasolindegia
Avia Adenor 35 gasolindegia

ADENOR Igorre
www.aviaenergias.es

Explanada Punta Ceballos z/g
48508 Zierbena (Bizkaia)
Tel. +34 944 130 159

Banaketa
Berogailuetarako
gasolio zerbitzua

GURE BIHOTZA
Operazio zentroa
Bilboko Portu Autonomoan

Oraineko Urri lehenekoak

Gure
ikastetxeak

Euskalduna
kalidadezkoa

herrikoa

JB Eguzkiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	Ikastola Arratia HI Tel.: 94 673 90 65 Artea
Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Dima	Arratia BHI Tel.: 94 428 79 34 Igorre
Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Areatza
Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	I. Zubizarreta HLHI Tel.: 94 673 60 22 Igorre

2 urteko 18ra

KOMIKIA

Kailo Ren



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK ETXEA ALOKAIRUAN

Diman pisua alokatzen dot. Gela bi, komun bi, salea eta suete ederragaz. Garajea etxe azpian, argitsua eta orientazio onean. Hilean 700 euroren truke. Kontaktatu zenbakia: 666 125 725.

PARTZELEA ESKAINTZEN DOT

Lemoako Ajuriagerra kalean, kotxea aparketako partzelea eskaintzen dot alokairuan. Interesdunak deitu 627 087 495 telefonora.

KLASEAK EMOTEN DIRA

Fisika, Kimika, Matematika eta Biologiako klase partikularrak emoten dira Igorren. Interesdunak deitu 610 682 961 telefonora.

KLASEAK EMOTEN DIRA

Matematika, Euskera eta Gaztelania klase partikularrak emoten dira online zein modu presentzian, Lehen Hezkuntza osoa eta DBH 1. mailako ikasleentzako. Interesdunak deitu 646 447 988 telefonora.

ELIKADUREA ETA NUTRIZINOAN ADITUA

Elikatze ohitura konziente eta osasuntsuak jarraitzen lagunduko deusut; horretarako, plan personalizatu egingo deusut heziketa nutrizional, *coaching* edota *mindful eating*-a oinarritzat hartuz. Hartu-emonetarako: narao_esparza@hotmail.com (lehen hitzordua doban).

Zezer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@topagunea.com helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 BEGITUKO kamiseta bana.

Ainhoa Rodriguez (Dima)
Yazmina Beobide (Zeanuri)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 18 urte eta ehundaka lagun.

94 631 73 14 | www.begitu.org | begitu@topagunea.com

umeen modu

sem

Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa: 94 631 92 96 • semodu@hotmail.com

begitu

Dia %

PEDRO

AUTOZERBITZU

Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

Orre

FOTOKOPIAK - PAPERDENDA

L. Agirre, 1.
48110 Igorre (Bizkaia) Tfnoa: 94 673 64 33

Igorren

ARKITEKTOA

Aitzol Aurrekoetxea Pujana

Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Kepa Intxausti

TAXI ZERBITZUA

609421222

IGORRE

ZEKUTZE

JATETXEA

Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
zekutejatzetxe@hotmail.com

Tel.: 94 631 52 83

NAIARA Hertz Klinika

Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

ZUZENBIDE

ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK

AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA

DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...

Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

BIXER

TABERNA

Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis Corbacho

pintura lanak

Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia

Tel.: 94-673-70-87
Tel.: 609-79-40-54

KIRRU

ILEAPAINDEGIA

ROSANA eta ROBER

SABINO ARANA 38
IGORRE

Tlf. 94 631 92 00

Pinturas Anaitia

Javi Morato

Tel. 628 443 992

BIZARGINAK

Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu Bizkaia egin eta bukunduten dogu

Tel. 94 607 78 33

Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE

begitu

18 urte

arratia
ubide
zeberio

BAIETZ 50 LAGUN BARRI EGIN!

2020AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako ballabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko. Horretarako **2020an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babesteko dozu?

Hori egitegaitik Areatzako Bainuetxean lagun birentzako zirkuitu termala + buffet menua zozketatuko dogu hurrengo hamabostaldian **Begitu-lagun** barrien artean.

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkarte

Herriko plaza 24. 48142 Artea.

*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____

Kontu korrontearen zenbakia: ES _____

Aukeratu urteko kuotea: 35€ 55€ 75€

Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@topagunea.com helbidera.

begitu

ez da debalde

Emon gitxi, eta jaso asko. Badira, zure diru apur bat merezidu daben berbak. Izan zeu be **Begitu-laguna!**

www.begitu.org